

**EUSKARA**

**Nagore GARZO MANJÓN**

**ONDARE KULTURAL  
MATERIAGABEA EUSKARAREN  
IRAKASKUNTZAN:  
LEHEN HEZKUNTZARAKO  
PROPOSAMEN DIDAKTIKO BAT**

**TFG/GBL 2016/17**

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación Primaria**

**/**

***Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua***



**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Primaria**

Grado Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**ONDARE KULTURAL MATERIAGABEA**  
**EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN:**  
**LEHEN HEZKUNTZARAKO PROPOSAMEN**  
**DIDAKTIKO BAT**

Nagore GARZO MANJÓN

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES  
**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Nagore GARZO MANJÓN

**Izenburua / Título**

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktikoa

**Gradu / Grado**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Ekaitz Santazilia Salvador

**Saila / Departamento**

Filología y Didáctica de la Lengua/ Filología eta Hizkuntzaren Didaktika

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2016/2017

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberria / Primavera

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Didaktika eta diziplinako moduluak bide eman dit, biologiako ezagutzak eskuratzeaz gain, horiek kurrikulumean duten presentziaz jabetzeko eta, ikastetxeko beste irakasle batzuekin koordinaketan, gure ikasleei egokitzen jakiteko. Ondare kultural materiagabea lantzeko proposamena egitean konturatu nahiz zientzia, gizartea eta garapen teknologikoaren arteko elkarreaginaz eta hori transmititu nahi izan diet ikasleei. Zehazki nire proiektuan egun elikaduraren alorrean dugun jakintza gure aitonaonek zutenarekin alderatuko dugu eta horiek teknologiaren garapenaren ondorio izan direla konturatuko gara. Hori lantzeko, Hizkuntzaren Didaktika irakasgaiari jorratutako Communicative Approach teknika erabiliko dut non Komunikatzeko gaitasuna eguneroko testuinguruetan landuko dugun. Garatu dudana beste trebetasun bat eduki horiek ebaluatzeko tresna aproposak aukeratzea eta diseinatzea izan da, hainbat teknika erabili baititut: errubrikak ahozkoa eta idatzizkoa ebaluatzeko; koebaluaketa, hau da, ikasleen artean zuzentzea; eta test bidezko azterketa. Horiek guztiak nik moldatu behar izan ditut ikasgelan gaitasun teknologikoa ere landu zedin eta horretarako unibertsitatean IKTeen inguruan eskuratutako ezagutzak erabili ditut.

Halaber, Practicum modulua proposamen didaktikoaren atalean nabarmentzen da aurretik aztertutako teoriak praktikan jartzeko aukera eman baitit. Ezinbestekoa dirudit teoria gela bateko errealitatean eramatea eta, honela, horren aplikazioaren emaitzak ikusirik, batetik, hausnarketa egitea eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea. Gainera, proiektua martxan jartzean konturatu naiz hezkuntza komunitatearen eta testuinguru sozialen artean elkarlanean aritzeko moduez.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira, "Antecedentes", "Patrimonio Cultural Inmaterial y su didáctica" eta "El curriculum de quinto de Primaria" atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

## Laburpena

Lan honetan egin dudana zera da: Ondare kultural materiagabearen (OKM) hezkuntza curriculumean integratzearen gizarte beharrari erantzuna ematea eta prozesu horrek euskararen irakaskuntzari dakartzkion onurak aztertzea. Honela bada, helburu hori duen unitate didaktikoa sortu eta martxan jarri dut. Lehen Hezkuntzako bosgarren mailarako prestatu dut eta proiektu lan egiteko pentsatua dago. Jorratu den gaia elikadura da eta proiektu honekin lortutakoa gure arbasoen ezagutza eta ohiturak egungo ezagutza zientifikoarekin eta gastronomia azturekin bateratzea izan da. Bide horretan ikasleek elikadura osasuntsuaren oinarriak, jarraibide testuak idazteko gaitasun eta ezagutza eta euskalkietako hiztegia eskuratu dituzte testigantzen bidez. Ikasleen garapena azertu eta ebaluatu ondoren, aitortu dezaket ikasleek OKMrekin zuten engaiamendua handitu dela eta Euskararen ezagutza hobetu dutela unitate honi esker.

*Hitz gakoak:* Ondare kultural materiagabea (OKM); euskara; irakaskuntza; arbasoak; ohiturak.

## Resumen

Este trabajo responde a la necesidad social de la integración del Patrimonio Cultural Inmaterial (PCI) en el currículo educativo y mostrar los beneficios que ese proceso aporta a la enseñanza del euskara. Así pues, he creado y puesto en práctica una unidad didáctica que cumplimenta el objetivo mencionado anteriormente. He desarrollado este proyecto para el alumnado de quinto de primaria y está pensado para trabajar por proyectos. El tema que se ha trabajado es la alimentación y con este proyecto el alumnado ha sido capaz de unificar los conocimientos y tradiciones de sus antepasados con los conocimientos científicos y costumbres gastronómicas de hoy en día en un pincho. Para ello aprenderán el vocabulario y las características de un texto instructivo mediante varios testimonios. Tras analizar y evaluar la evolución del alumnado puedo asegurar que la unidad ha aumentado el nivel de compromiso con el PCI y el conocimiento del euskara.

*Palabras clave:* Patrimonio Cultural Inmaterial (PCI); euskara; enseñanza; antepasados; tradiciones.

## **Abstract**

This researching work answers the social need to integrate the Intangible Cultural Heritage (ICH) into the educational curriculum and to prove the beneficial contribution of that process in the teaching of Basque. Therefore, I have created and put into practice a didactic unit which fulfills the previous aim. This proposal has been targeted for children aged 10-11 and it is based on a project-based methodology. Nutrition is the subject we have developed and thanks to this project students have been able to link the knowledge and traditions of their ancestors with the actual scientific knowledge and food-related customs, in order to create a *pintxo*. After analysing and evaluating the evolution of the children, I can assure the unit has encouraged students' engagement with the ICH and enhanced Basque language knowledge.

*Keywords:* Intangible Cultural Heritage (ICH); Basque; teaching; ancestors; traditions.

## **Résumé**

Ce travail répond au besoin social d'intégration du patrimoine culturel immatériel (PCI) dans le programme scolaire et démontre les bénéfices que ce processus apporte à l'enseignement de l'euskara. Ainsi, j'ai créé et mis en pratique une unité didactique qui remplit l'objectif mentionné antérieurement. J'ai développé ce projet pour une classe de CM2 en primaire et il est pensé pour travailler par le biais de différents projets. Le thème étudié a été celui de l'alimentation et grâce à ce travail, les élèves ont pu être capables de réunir les connaissances et les traditions de leurs ancêtres avec les connaissances scientifiques et habitudes alimentaires d'aujourd'hui en un *pintxo*. Pour cela, ils ont appris le vocabulaire et les caractéristiques d'un texte instructif à travers divers témoignages. Après avoir analysé et évalué l'évolution de la classe je peux affirmer que cette unité a augmenté le niveau d'engagement dans le PCI et la connaissance de l'euskara.

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat



Mots clés: patrimoine culturel immatériel (PCI); euskara; enseignement ; ancêtres ; traditions.

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b>	<b>1</b>
<b>1. HELBURUAK, ARDATZ GALDERAK ETA LANAREN JUSTIFIKAPENA</b>	<b>2</b>
1.1. <i>Helburuak</i>	2
1.2. <i>Ardatz-galderak</i>	3
1.3. <i>Lanaren justifikapena</i>	3
<b>2. ANTECEDENTES</b>	<b>4</b>
2.1. <i>Recorrido del concepto de patrimonio</i>	4
<b>3. ESPARRU TEORIKOA</b>	<b>8</b>
3.1. <i>Ondare kultural materiagabea</i>	8
3.2. <i>Gorputz-adimena</i>	11
3.3. <i>Ondare kultural materiagabea eta identitatea</i>	13
3.4. <i>El Patrimonio Cultural Inmaterial y su didáctica</i>	20
3.5. <i>El curriculum de quinto de primaria</i>	23
<b>4. UNITATE DIDAKTIKOA</b>	<b>27</b>
4.1. <i>Sarrera</i>	27
4.2. <i>Justifikazioa</i>	27
4.3. <i>Testuingurua</i>	28
4.4. <i>Helburu didaktikoak</i>	29
4.5. <i>Edukiak</i>	30
4.6. <i>Metodologia</i>	31
4.7. <i>Jardueren sekuentziazioa</i>	34
4.8. <i>Kronograma</i>	51
4.9. <i>Ebaluazioa</i>	53
4.9.1. <i>Hiztegia ebaluatzeko froga (%20)</i>	53
4.9.2. <i>Ahozotasuna ebaluatzeko errubrika (%40)</i>	53

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

4.9.3. Errezetaren autoebaluaketa (%40)	55
<b>ONDORIOAK</b>	<b>56</b>
<i>Datuen azterketa</i>	56
<i>Datuen interpretazioa</i>	59
<b>HAUSNARKETA</b>	<b>60</b>
<b>ERREFERENTZIAK</b>	<b>65</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>68</b>
1. <i>Eranskina: Zer da ondare kultural materiagabea?</i>	68
2. <i>Eranskina: Aiton-amonen inguruko informazioa jasotzeko fitxa</i>	71
3. <i>Eranskina: Gurutzegramak</i>	73
4. <i>Eranskina: Jarraibide testua lantzeko ariketak</i>	75
5. <i>Eranskina: Janariarekin harremanuriko ohitura eta abestiak</i>	79
6. <i>Eranskina: Pintxoaren informazio fitxa</i>	80
7. <i>Eranskina: Hiztegiaren frogak</i>	81
8. <i>Eranskina: Ondarearen frogak</i>	83
9. <i>Eranskina: Pintxo festaren proiektuaren autoebaluaketa</i>	85



## **SARRERA**

Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduaren azken txanpa hau gainditzeko Gradu Bukaerako Lana (GBL) besterik ez zaigu falta. Lan honetarako zenbait gai eman zizkiguten eta horien artean honako hau hautatu nuen: “Ondare Kultural Materiagabearen erabilera euskararen irakaskuntzarako”. Lan honen zuzendaria Ekaitz Santazilia Salvador tutorea izan da.

Gai hori aukeratzearen arrazoia aurreko urtean Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin burutu nuen elkarlan beka bat izan da. Izan ere, beka horretan zehar Nafarroako Ondare Kultural Materiagabearen Artxiboaren lana gertutik azertu ahal izan nuen, haien web-orria euskarako eta ingelerazko itzulpenak egiteaz arduratu nintzelako. Honela bada, ondarea zertan zetzan ikasi nuen eta bai horrek bai belaunaldiz belaunaldiko transmisioak gure gizartean zuen eraginaz ohartu nintzen.

Halaber, UNESCOk Europako zenbait herrialdeekin 2003an Parisen sinatu zuen hitzarmenari esker, lurralde horietako gobernuek arreta gehiago eskaini diote haien Ondare Kultural Materiagabea definitzeari eta babesteari. Babesa hiritarrek horrekiko duten errespetua sustatuz lortzen denez, ezinbestekoa da sentimendu hori txikitatik bermatzea. Azkenaldian hainbat izan dira OKM berriki kontsideratu diren elementuak eta horren inguruan “Lanaren justifikapena” atalean gaia sakonduko dut.

Hortaz, GBLrako gaien zerrendari so egitean, gai hori deigarri egin zitzaidan, segituan lotu bainuen Artxiboan egindako lanarekin eta haien web-gunean zeuden testigantzekin. Hasieratik sortu zitzaidan lekukoaren testigantza horiek kurrikulumeko edukien irakaspena bideratzeko zuten ahalmenaren inguruan ikertzeko grina.

Hori dela eta, Gradu Bukaerako Lan honetan sentimendu hori bultzatzen duen eta ikasle kritikoagoak egingo dituen euskarazko unitate didaktiko baten proposamena aurkituko duzue. Unitate hori garatzeko hainbat pausu eman ditut lehendabizi eta horren arabera egituratu dut lana.

Hasieran, lanaren nondik norakoak azaldu ditut “helburuak, ardatz galderak eta lanaren justifikapena” izena duen atalean. Ondoren, ondare kultural materiagabearen garapen historikoaren azalpena egin dut, kontzeptuaren gaur egungo esanahia ulertzeko baliagarria dena.

Horren ostean, unitatea garatzeko behar izan dudan marko teorikoa dago. Bertan, lehendabizi OKMren definizioa eta ezaugarri nagusiak zehaztu ditut, baita honekin erlazionatua dagoen Gorputz-adimena ere. Jarraian, identitatearen sorreraren eta ondareak prozesu horretan izan dezakeen eraginaren inguruko hainbat teorietan murgildu naiz. Azkenik, didaktika alorrean izan dezakeen parte hartzea aztertu dut modu orokorrean hasieran, eta zehatzagoan, ondoren, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako kurrikulumeko edukiak garatzeko tresna gisa duen baliagarritasuna ikertuz.

Behin, esparru teorikoa finkaturik unitate didaktikoaren testuingurua, helburuak, edukiak, metodologia, jarduerak eta ebaluaketa deskribatu ditut.

Lanarekin amaitzeko, unitate didaktikoa martxan jarri ondoren eskuratu ditudan emaitzak adierazi eta horien gainean hausnartu dut.

“ERANSKINAK” izeneko atala ere atxikitu dut lanean, non unitaterako diseinaturiko ariketak eta proiektuaren ebaluaketa egiteko frogak ikusgai dauden.

## **1. HELBURUAK, ARDATZ GALDERAK ETA LANAREN JUSTIFIKAPENA**

Honako hauek dira Ondare Kultural Materiagabearekin (OKM) lan egin behar duten irakasle eta profesionalen kontuan izan beharreko helburuak:

### **1.1. Helburuak**

- Ondare Kultural Materiagabea hezkuntza kurrikulumean integratzen jakitea
- Ikasleak Ondare Kultural Materiagabea identifikatzeko gai izatea
- Ikasleak Ondare Kultural Materiagabearen garrantziaz jabetzeko testuinguruak prestatzen jakitea

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

- Ikasleek belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren inguruan gertaturiko aldaketen inguruan hausnartzera bultzatzeko gai izatea
- Ikaskuntza ikasleen alde emozionalarekin erlazionatzen jakitea
- Euskalkien ezagutza areagotzeko testigantza egokiak aukeratzeko gai izatea

## **1.2. Ardatz-galderak**

Duela gutxi hasi ziren Europako gobernu jakin batzuk OKM alor didaktikoan sartzen, hortaz, oraindik lan eskerga dago egiteke. Jarraian garatzen den lan osoa zenbait galdera ardatz harturik antolatu eta garatu da:

- Zer da Ondare Kultural Materiagabea?
- Zer harreman du OKMk identitatearen sorrerarekin?
- Zein garrantzia du OKMren erabilerak hizkuntzen didaktikan?
- Nola integratu daiteke OKM kurrikulumean?
- Nola erabili daiteke OKM euskalkiak ezagutzeko?
- Nola sustatu ikaskuntza eta alde emozionalaren arteko harremana?

## **1.3. Lanaren justifikapena**

Azkenaldian interes handia jartzen ari dira Europako gobernuak beren Ondare Kultural Materiagabea finkatzean, adibidez, El País egunkarian bi albiste argitaratu zituzten duela gutxi, bat, 2016ko azaroan UNESCOk Valentziako “Fallak” OKM aitortu baitzituen ([http://cultura.elpais.com/cultura/2017/03/18/actualidad/1489852372\\_952222.html](http://cultura.elpais.com/cultura/2017/03/18/actualidad/1489852372_952222.html)) ; bestea, 2017ko apirilean non Saint Jordi eguna OKM kontsideratzeko prozesuan sartu dela ospatzen zuten ([http://caa.elpais.com/caa/2017/04/21/catalunya/1492809343\\_261201.html](http://caa.elpais.com/caa/2017/04/21/catalunya/1492809343_261201.html)).

Euskal Herrian mota honetako ondare asko ditugu: munduan hainbeste entzuna den gastronomiaz gain, dantza, egun bereziak eta bestelako tradizioak ere aipa daitezke, mendez mende ahoz aho transmitituak izan direnak. Horiek jasotzeko asmoarekin hainbat ikertzaile eta aditu herriz herri ibili dira duela urte batzuetatik hona gure arbasoen istorioak eta testigantzak

---

jasotzen, horiek galdu ez daitezten. Lan horretan dabilta, esaterako, [www1.navarchivo.com](http://www1.navarchivo.com) web gunean jaso diren testigantza asko Euskokultur Fundazioko Maite Lakarrek bildu ditu eta aipagarriak dira, halaber, Patziku y Joxan Perurena.

Web orri hori Nafarroako Ondare Materiagabearen Artxiboarena da. Bertan, aurretik esan dudan bezala, Nafarroako hainbat herrietako testigantzak bildu dituzte bertako zenbait aditu eta orain horiek zabaltzeko web-orri bat sortu dute non gordetako informazio guztia partekatuko den. Izan ere, laster nabaritu zuten testigantza horiek bildu eta gainerako biztanleekin partekatzeko beharra.

Zabalkuntza prozesua hasi soilik egin da, testigantzekin lanean jardutean ohartu baitira informazio hori gure gizarteko gazteenen eskuetan jarri beharra dagoela, haien identitatea finkatzeko modurik onena baita egungo mundu globalizatuan eta, horretaz gain, gure historia gertuago sentitzeko aukera ematen baitie. Ondorioz, bai Europan zehar baita Estatu mailan ere, informazio horiek biltzen dituzten unitate didaktiko batzuk sortzen hasi dira. Esaterako, Espainiako Gobernuak “Patriren Bidaiak” izeneko unitate liburua argitaratu du eta gizarte osoaren eskutan dago bere web gunean publikatua baitu (<http://www.mecd.gob.es/planes-nacionales/actuaciones/educacion/unidades-didacticas.html>). Halere, euskarazko materialak gutxi dira eta unitate osorik oraindik ez da argitaratu. Horregatik, hemen txertatu dut nire Gradu Bukaerako Lana.

## **2. ANTECEDENTES**

Antes de explicar la propuesta didáctica que he desarrollado me gustaría brindar al lector un bagaje teórico que ayude a situarse en los temas que trataré a continuación, por ello comenzaré por hacer referencia a los antecedentes y al recorrido histórico del concepto de patrimonio, para que seamos conscientes de su evolución.

### **2.1. Recorrido del concepto de patrimonio**

Desde la antigüedad el ser humano ha sentido la necesidad de explorar nuevos terrenos y conquistarlos. Así pues, una vez conquistado un nuevo lugar se apropiaban de aquellas

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat



pertenencias a las que se les llamaba “botín” y cuánto mayor era el dinero que pudieran conseguir a cambio de ello mayor era el valor de ese botín. De este modo, en esta época el patrimonio era considerado una posesión y su importancia recaía únicamente en el valor económico que tuviera (Llull Peñalba, 2005).

Ese afán por el coleccionismo se fue profesionalizando poco a poco y alrededor del siglo XVIII varias academias, sobre todo la de Bellas Artes, vieron la necesidad de convertirse en centros de anticuarios y de investigación a fin de guardar, tutelar y controlar esos objetos. Aquí comienza a adquirir el valor de la transmisión entre generaciones pero la sociedad francesa y la inglesa aportan diferentes perspectivas del patrimonio. Por un lado los franceses llaman “patrimoine” a aquello que hemos recibido de las generaciones pasadas. Por otro lado, los ingleses se referían a ello como “heritage” que hace referencia a lo que transmitimos a las generaciones futuras (González Monfort, 2008).

Las dos visiones se complementaron y era evidente el creciente interés de las élites sociales por adquirir nuevos hallazgos. Esto hizo que se comenzaran a realizar expediciones científicas y la cultura comenzó a adquirir protagonismo en las conversaciones humanas. En consecuencia, la cultura se comenzó a relacionar con las altas clases sociales y sirvió para delimitar las diferencias entre clases (Llull Peñalba, 2005).

En el siglo XIX se dan cuenta del valor documental que aporta el patrimonio ya que se relacionan objetos y sujetos, es decir, esos bienes culturales se empiezan a considerar como “el reflejo del mundo mental de quien crea y utiliza el patrimonio” (González Monfort, 8.orr). Esto hace que se introduzca en el ámbito educativo pues se comienza a aprender de nuestros antepasados analizando aquello que nos han dejado y esto ayuda a que cada sociedad vaya creando su propia identidad. Además, teniendo en cuenta que la cultura tiene un carácter cambiante el patrimonio también lo tendrá y, por ello, a la medida que se va transmitiendo a las sucesivas generaciones, irá adquiriendo las características de esa cultura por las que va pasando, entrando así en “un progreso universal, lineal e ilimitado” (González Monfort, 9.orr).

---

Gracias a esta nueva visión en el siglo XX se considera un “bien común” para acoger también las creaciones contemporáneas y las expresiones folklóricas, etnográficas o cualquier otro elemento no artístico pero igualmente importante para la sociedad (Llull Peñalba, 2005, 191.orr).

Siendo un bien común y referente de la identidad de cada cultura, las sociedades sienten la necesidad de exponerlo al mundo para así diferenciarse de los demás. Otra razón importante es la económica, puesto que necesitan recuperar el dinero que invierten en la salvaguarda de estos bienes.

A consecuencia de esta visión económica desde el siglo XX hasta la actualidad, se vuelve a poner énfasis en el aspecto del patrimonio a fin de atraer a la gente y que, de este modo, la rentabilidad se incremente. Por ello, se crea el “turismo cultural” que se basa en viajar a diferentes territorios para conocer su cultura. Para dar respuesta a esta demanda las academias que antes guardaban los bienes evolucionan en museos y centros de interpretación en los que se da a conocer el patrimonio cultural local. Además, para que los visitantes puedan entender mejor todo lo que allí se muestra, comienza el trabajo de los guías. Hoy en día, dada la abundante cantidad de visitantes, se ha ampliado la oferta de la visita guiada con audioguías que cada persona puede llevar consigo ya sea en un móvil como en una tablet, o, incluso, en grupo subidos en un autobús, por ejemplo.

Los centros educativos, también comienzan a interesarse en mostrar esto al alumnado, por lo que se crean unas visitas y unos materiales específicos para la enseñanza.

Pronto se han dado cuenta los gobiernos y las fundaciones que organizan este tipo de recursos que al aumentar la cantidad de gente que visita estos centros, monumentos y terrenos están siendo explotados y, en consecuencia, destruidos. No hay que olvidar tampoco que a causa de las dos guerras mundiales gran parte del patrimonio fue arrasado.

Para evitar que todos esos bienes desaparecieran, en 1945 surgió la UNESCO (Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura) para reforzar los vínculos entre naciones y sociedades con el objetivo de que las próximas generaciones tengan acceso a una


educación de calidad gracias al cuidado y el respeto al “Patrimonio Mundial”, concepto que creó esta organización. (UNESCO, UNESCO, 2017)

Respecto al Patrimonio Cultural Inmaterial (PCI) ha sido esta organización la que ha puesto las bases para poder identificarlo y, de este modo, establecer unas pautas para su salvaguardia. De hecho, el 17 de octubre de 2003 reunió a 18 representantes de Estados Parte en una convención con la finalidad de , como bien he mencionado anteriormente, la salvaguardia del PCI, así como promover tanto el respeto y la sensibilización a su importancia como la cooperación y asistencia internacionales. (UNESCO, Convención para la salvaguardia del Patrimonio Cultural Inmaterial, 2003)

Ese documento ha sido clave para la elaboración de este Trabajo de Fin de Grado ya que, además de todo lo mencionado, en el artículo 14 titulado “Educación sensibilización y fortalecimiento de capacidades” hace referencia a los tres objetivos que cada Estado Parte debería procurar por todos los medios posibles. Esos son los objetivos claves que he tomado como guía para mi trabajo:

- Asegurar el reconocimiento, el respeto y la valorización del patrimonio cultural inmaterial en la sociedad mediante programas educativos, actividades de fortalecimiento y medios no formales de transmisión del saber
- Mantener al público informado de la delicada situación de ese patrimonio debido a las amenazas.
- Promover la educación sobre la protección de espacios naturales y lugares importantes para la memoria colectiva.

Para resumir todo esto usaré el esquema de Neus González Monfort (2008, p.13):



1. Imagen: El patrimonio cultural (Monfort, 2008, p.13)

Ahora que ya sabemos cómo se ha formado la actual visión del patrimonio, me centraré en el patrimonio cultural inmaterial.

### 3. ESPARRU TEORIKOA

#### 3.1. Ondare kultural materiagabea

Aurreko puntuan ondarearen jatorriaren nondik norakoak barneratu ostean, orain gaien sakondu eta ondare kultural materiagabea definitu dut. Unitate didaktikoan darabildan oinarritzko kontzeptua izanik, ezinbestekoa da horren inguruko ideia nagusiak barneratzea.

Ondare kulturala, aurreko puntuan esan dudana bezala, ondorengo belaunaldientzako gorde nahi dugun horrek osatzen du eta bere garrantzia talderen batekiko dugun partaidetza sentimenduan datza. Hortaz, ondare kulturalaren multzoa oso handia da eta horregatik bi esparru nagusitan sailka daiteke bere izaeraren arabera (González Monfort, N. ,2008): batetik materiala izan daiteke, esate baterako eraikuntzak eta objektuen kolekzioak ; eta bestetik,

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

materiagabea, arbasoengandik jasotako aztura edo adierazpenak. Bigarren honetan kokatzen da orri hauetan zehar garaturiko ikerketa lana, hortaz, zertxobait gehiago zehaztuko dugu zertan datzan ondare mota hau.

Unescok 2003an Parisen sinatutako hitzarmenean definitu zuen ondare kultural materiagabea (OKM) komunitate, talde eta zenbait kasutan gizabanakoek euren ondare kulturaltzat dituzten erabilpen, errepresentazio, adierazpen, ezagutza eta teknikak direla. Belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira horiek, hortaz, ingurumena, natura eta historiarekin duen elkarreraginaren ondorioz, komunitate eta taldeek berreraikitzen dute. Modu honetara, garai bakoitzean talde bakoitzak bere aurrekoen identitatean oinarritu eta testuinguru horretako ezaugarri bereziak gaineratuko dizkio. Honek jarraipen sentimendua gaineratzen dio, talde batzuetatik besteetara igortzen baita eta momentuoro testuinguru bakoitzari egokitzeko gaitasuna baitauka. Gainera, talde bakoitzaren ezaugarrien ordezkari eta aldi berean guztien batasunaren adierazle izateak aniztasun kulturalarekiko eta giza-sormenarekiko errespetua zabaltzeko tresna bikaina bilakatzen du.

Ikusten denez, definizioa oso orokorra da eta horrek OKM mugatzea asko zailtzen du, beraz, Pariseko batzar horretan ezaugarri nagusiak honako lau kontzeptuetan laburbildu zituzten:

- a. Tradizionala, egungoa eta biziduna aldi berean: arbasoengandik jasotako jakintzak egungo ezagutzekin batu eta hobetu egiten baititugu.
- b. Integratzailea: transmititua izan zaigun horrek kohesio soziala lortzen laguntzen digu, identitatea eta jarraipen sentimendua ematean, hau da, jasotako hori etorkizunera transmititzeko ardura sentitzean, talde batean dugun partaidetza ikusarazten baitigu
- c. Ordezkaria: komunitateetan sortzen denez, horien ezaugarriak garraiatzen ditu berekin eta horren zabalkuntzaz komunitate horiek arduratu beharko dute.
- d. Komunitatean oinarritua: ondare kultural materiagabea da hala aukeratzen badute komunitateek, taldeek edota gizabanakoek, izan ere, euren ezaugarriak garraiatzen ditu. Ezin du beste inork horien ezaugarriak zeintzuk diren zehaztu.

---

Ondare kultural materiagabea adieraz daitekeen esparruen inguruan, ordea, honako lau eremuetara mugatzen ditu aurretik aipaturiko hitzarmenak.

- a. Ohitura eta adierazpen oralak, hizkuntza barne
- b. Antzezenaren artea
- c. Gizarte erabilpen, errito eta festa ekintzak
- d. Natura eta unibertsoarekin erlazionaturiko ezagutza eta erabilpenak
- e. Tradiziozko artisautza teknikak

Aurretik esan bezala bi ondare mota daude eta sailkapena euren izaeraren arabera egiten da. Izaera hori zuzenki lotuta dago bere transmisioarekin, izan ere, materiala ikusi eta ukitu dezakegun ez bezala, materiagabea ahoz aho transmititzen da, batik bat. Nahiz eta transmisio mota bakoitzak bere arazoak dituen, ahoz ahoko transmisioak dituen oztopoak zailagoak dira, esaterako, eraikuntza bat erortzen bada berreraiki daiteke, aldiz, lekukoak hiltzen badira eta haien jakintzak transmititzen ez badituzte haiekin amaituko dira. Honetaz kezkatutik, UNESCOk Ondare kultural materiagabearen babeserako eta zaintzarako Konbentzioa antolatu zuen 2003ko urriaren 17an Parisen eta bertara Estatu Parteen 18 ordezkari deitu zituen, ondorengo urteetan 24ra igo zen kopurua. Bilera orokor hau bi urtero burutzea adostu zuten eta bilera hartan ondare honen definizio, aukeratze irizpideak eta babeserako eta zaintzarako pausoak finkatu zituzten, besteak beste.

Modu honetara, UNESCOk munduko biztanleak ohartarazi nahi ditu atzitu ezin dugun ondare motak gure gizartean duen presentziaz eta garrantziaz, gure gizartea elkarreraginean oinarrituriko irakaskuntza-ikaskuntzan oinarritu baita Lehen Gizakietatik. Baina azkenaldian ondare honen izaera hauskorak jarraitutasun hori arriskuan jarri du eta berebizikoa da guztiok ahal dugun heinean indarberritze prozesuan esku hartzea. Horretarako, UNESCOk lurralde bakoitzak bere ondare kultural materiagabea osatzen dituzten elementuak identifikatzeko eta horiek babesteko gidalerroak eman zituen Pariseko bileran. Honela bada, desagertzeko zorian daudenak hauteman eta UNESCOk martxan jarritako zerrendan izena eman beharko dute, horiek babesteko tresnak eskuratu ahal izateko.

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

### 3.2. Gorputz-adimena

Ondare Kultural Materiagabeak barne hartzen duen eremu zabala ikusi dugu aurreko atalean eta sare horren konplexutasuna azaltzeko asmoz, Alfredo Asiáin eta Monica Aznarezek (2012) "Gorputz-adimena"ren kontzeptua sortu dute, "Patrimonio cultural inmaterial y adquisición / desarrollo del lenguaje: tradición discursiva y psicodinámica oral" izeneko artikuluan azaltzen dena.

Artikulu horretan aldarrikatzen dutena zera da: materiagabea organikoa eta kulturala dena barne hartzen dituen giza gorputzaren luzapen-elkarreraginak sorturiko adimenaren eskabidea dela. Beste hitz batzuetan esan daiteke gizakiok errealitatearekin dugun elkarreragina fisikoa eta mentala da eta horrek kultura eta, ondorioz, ondarea etengabe birmoldatzen ditu. Adibide batekin azalduko dut argiago gera dadin. Unitatean erabili ditudan testigantzetan janariarekin loturiko ohiturez hitz egiten dute, hau da garai haietan zer egiten zuten kontatzen dute. Hortaz, nahiz eta testigantza materiagabea den, ekintza haiek fisikoak ziren eta erabiltzen zituzten tresnak organikoak. Ohitura horiek gizarte horren ezaugarri eta pentsaerak islatzen dituzte eta haien identitatearen parte bihurtzen dira. Beraz, organikoak (gizakien ekintzek) eta adimena (gizarte horren identitate eta pentsaerak) osatzen dute materiagabea. Horregatik, bi autore horien aburuz, materiagabea dena definitzea UNESCOk 2003ko konbentzioan (UNESCO, 2003) adierazitako definiziotik haratago doa, materiagabea den guztia ondare ez dela baitiote. Haien aburuz, materiagabea dena gizakion kulturari bi elkarreragineko eta aldibereko norabide ditu, norabide batean eta bestean aldi berean biratzen duen kiribilarekin errepresentatzen dutena. Biraketa horietan eskabide guztiak eraiki eta berreraikitzen dabilta. Honela bada, kiribil horretan indibiduala denaren eragina taldekoa denarengan antzematen da eta, aldi berean alderantziz, taldekoa (kulturala) indibiduala denaren horrengan. Luzapen (garapen) eta elkarreragin horren, hots, etengabeko eraiki eta berreraikitze horren ondorioa da gorputz-adimena: gorputza (garuna barne), jakitun eta kulturala. Aipatzen duten bezala, esperimentazioa, sormena eta berrikuntza lehenengo norabidean doa, eta bigarreanean, aldiz, transmisioa, hezkuntza eta imitazioa, aldiberean eta banandu ezinik. Hortaz, OKM dinamikoa da uneoro garatzen eta aldatzen ari den heinean, hori dela eta, iradokitzen dute aipaturiko bi

---

autoreek ekosistema batekin alderagarria dela, dena baitago integratua eta elkar lotua. Zehazki ikuspegi honi “gorputz-adimenaren antropologia” deitzen diote. Kiribil honen ardatz bezala gorputz-adimena dugu, zeina etengabeko elkarreraginean dagoen bai gorputz-ekosistemarekin bai adimen ekosistemarekin baita ekosistema kulturalarekin ere. Lehenengo ekosistemarekin harremanetan imitazio eta esperimentazioaren bidez jartzen da, bigarrenarekin, ordea, sormenaren bidez hezkuntza formal, ez-formal eta informala testuinguruan. Azkenekoarekin transmisioaren bidezko eraldakuntzaren bitartez erlazionatzen da eta honek sormenarekin lotura zuzena du.

Hiru ekosistemen arteko elkarreragin eta luzapenak oreka ematen diote egitura osoari zeinak antzematea, sentitzea, pentsatzea eta ekitea ahalbidetzen digun. Gorputz ekosistema biziraupenaz arduratzen da, bertan aurki baititzakegu genero eta sexu identitatea, oroimen eragilea, oinarriko emozioak, mapak, neuroplastikotasuna, adierazpen ez-linguistikoa, inkontziente genomikoa, beharrak eta hormona kimikoak, aurrekontzientea den automatikotasuna, lotura sinaptikoak eta adierazpen genikoa eta oinordetzako genetika.

Adimenarekin zerikusia duen ekosistemak, aldiz, ongizatea bermatzen du bertako partaide baitira identitate pertsonala, oroimena, sentimenduak, sistema kognitibo, afektibo eta exekutiboa, jakituria sortzailea eta exekutiboa, metadiálogo edo hizketa pertsonala, irudimena, inpultsuak, desirak, motibazioak, proiektuak, metapraxia, sinesmenak, ikasitako eta aukeratutako pertsonalitatea.

Hirugarren ekosistemak, kulturarenak, alegia, horrenbeste elkarreraginetara egokitzeko gaitasunaren garapenaren ardura du, beraz, hemen gertatuko dira identitate kulturala, talde oroimena, baloreak, dohainak, jakituria eta ezagutza metatuak, talde inteligentzia, hizkuntza, irudimen kolektiboa, jarreraren erregulatuzailea, pragmatika kulturala, cosmoikuspegia eta Ethos.

Hiru ekosistemek eskaintzen dizkiguten edukiei so eginez gero, deigarria da nola ondare kultural materiagabearen atzean bizitzaren oinarri diren elementuak dauden eta horiek diren hezkuntzan jorratu nahi direnak, hortaz, bide honetatik jarraitu beharko genituzke gure irakaskuntza-ikaskuntza proiektuak ikaslearen garapen holistikoaren lanketa ziurtatzen baita. Gainera, gaur egun identitatearekin dauden arazoaren erantzuna izan liteke, hiru ekosistemek

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat



gizartea eta gizabanakoa aldi berean jorratzeak hausnarketarako bi bide ahalbidetzen baititu. Batetik, bakoitzak bere burua ezagutarazi behar du bere testuingurua aztertuz eta arbasoengandik jasotakoa kontuan izanik; bestetik, bere gizartea nolakoa den, bertan duen parte hartzea eta hori nolakoa izatea nahi duen ikertu beharko du. Modu honetara, ikasleak gizarteratzeko prestatuko dira eta horrek ziurtasuna emango die, gorputz-adimena orekan izango baitute.

Hurrengo atalean gizarteratzeko prozesu horretan horren garrantzitsua den identitatearen finkapenaren prozesua azaldu dut, honen jakinaren gainean egon behar bainaiz garapen horretan modu aktiboan lagun ditzadan.

### **3.3. Ondare kultural materiagabea eta identitatea**

Aurretik aztertu dudak bezala, garrantzi handia du ondare hori ondo babestu eta mantentzea transmititzen dituen ezaugarriak ezinbestekoak baitira ondorengo identitatea finkatzeko eta hiritartasuneko balioak eskuratzeko. Ondorioz, ondare kultural materiala honelakoa behar du izan:

- e. Tradizionala, egungoa eta biziduna aldi berean: arbasoengandik jasotako jakintzak egungo ezagutzeekin batu eta hobetu egiten baititugu.
- f. Integratzailea: transmititua izan zaigun horrek kohesio soziala lortzen laguntzen digu, identitatea eta jarraipen sentimendua ematean, hau da, jasotako hori etorkizunera transmititzeko ardura sentitzean, talde batean dugun partaidetza ikusarazten baitigu
- g. Ordezkarria: komunitateetan sortzen denez, horien ezaugarriak garraiatzen ditu berekin eta horren zabalkuntzaz komunitate horiek arduratu beharko dute.
- h. Komunitatean oinarritua: ondare kultural materiagabea da hala aukeratzen badute komunitateek, taldeek edota gizabanakoek, izan ere, euren ezaugarriak garraiatzen ditu. Ezin du beste inork horien ezaugarriak zeintzuk diren zehaztu.

---

Argi dago beraz, ondare kultural materiagabea estuki lotua dagoela identitate eta komunitatearekin, aipatu dugun moduan, ondare honetatik komunitate, talde edo gizabanakoen ezaugarriak eratorri baitaitezke.

Identitatea pertsona bat karakterizatu eta besteengandik desberdintzen duten ezaugarri multzoa da eta ezaugarri horiek inguruan ditugunak aztertuz sortzen dira (Rodríguez Lestegás, F., 2008). “Besteak” bi taldetan banatzen dira, berdinak eta ezberdinak, hau da, ezaugarriak konpartitzen dituztenak eta ez dituztenak. Aurretik zehazturiko moduan, talde baten ezaugarriak talde horrek berak ezartzen ditu eta gainerakoek ezin dute lan hori egin.

Halere, gaur egun beste fenomeno bat ematen ari da identitate aniztasuna deritzona. Globalizazioak, komunikabideen garapenak eta emigrazioak bezalako beste zenbait faktoreen ondorioz, pertsona batek hainbat komunitate edo taldetakoa dela senti dezake (Castells, 1999, 28-29.orr), horregatik, ezinbestekoa da horiek mugatu eta finkatzea. Lan honetan OKMk duen ardura arras garrantzitsua da, gure arbasoak baitira gu nor garen definitzeko lehengo pausua eta honela hasiko gara GU hori definitzen eta Castellsek (1999) gure existentziari esanahia ematen (28-29.orr).

Jakina da nahiz eta identitatea bizitzan zehar garatzen eta definitzen dugun, gaztetan hasten den prozesua dela eta garai horretan ezartzen direla identitatearen oinarri sendoenak, horregatik, eskola gizarteratzearen lehenengo pausoa denez, leku horrek esperientzia kolektiboak eskaini beharko ditu modu honetara, talde baten partaidetza sentimendua eta identitatea garatzen hasteko. Gainera, egun eman diren inmigrazioak direla eta, gure eskolak interkulturalak bihurtu dira eta honek aukera paregabeak eskaintzen dizkigu, izan ere, bakoitzak bere bizkarrean dakartzan ondare kultural materiagabea ikaragarria da eta bertako ikasleek asko ikas dezakete beste kulturetatik, honela beraiena hobetu finkatuz eta alderantziz, bertakoek ikasle berriari euren jakintzak transmititzean hura eskolako taldearen parte sentitzen lagunduko dute.

Hortaz, identitate eta hiritartasunaren arteko harreman tradizionala desagertzen ari da globalizazioarengatik batik bat eta munduan gertatzen ari diren beste zenbait faktoreengatik (Rodríguez Lestegás, F. (coord.), 2008). Halere, aldaketa horrek ez du zertan negatiboa izan, gure

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

esku dago aldaketa horiei esker sorturiko aurrerapenez probestu eta gure ikasleek euren identitateak finka ditzatela OKMren eskutik.

Hori egin ezean, mundua homogeneoa bihurtuko da eta ziurrenik kultura nagusi baten menpe egongo gara. Beraz, egungo gizabanakoek ez badituzte euren identitateak ongi finkatzen eta baloratzen eta bestena ere ez badute errespetatzen, orain arte belaunaldiz belaunaldi transmititu den ondare materiagabeak ez du ez indarririk ez aukerarik izango moldatu eta etorkizunera jarraitzeko.

OKMaren parte dira hizkuntzak eta izugarria da orain arte desagertutako hizkuntza kopurua azken hiztuna hiltzean. Honen larritasunaz konturatzeko UNESCOk hizkuntzen Atlas interaktibo bat eskuragarri utzi zuen bere webgunean (<http://www.unesco.org/languages-atlas/index.php?hl=es&page=atlasmap>), non nahi duzun lurraldean dauden hizkuntzak topa ditzakezun. Gurean ere euskararen kasua dugu. Euskararen jatorria oraindik ere ezin izan dute finkatu ikertzaileek baina hizkuntzetan zaharrena dela baieztatzen dute, egia da antzinako euskara eta egungoa nahiko desberdinak direla, aurretik esan bezala OKMaren ezaugarrietako bat belaunaldiz belaunaldi transmititzean beti moldatzen dela baita. Gainera, historian zehar hainbat eraso jasan ditu, baina azkenaldian laguntza jasotzen ari da bere hiztunek martxan jarritako ekintzei esker: KMK, KORRIKA, NAFARROA OINEZ, IKASTOLAK, AEK...

Halere, oraindik ondare kultural materiagabearekin eskolan lan egiteko proposamen didaktikorik ez zegoenez, nik neuk unitate bat egin dut eta hurrengo atalean hizkuntzen didaktika eta OKM harremanetan nola jarri ditudan azalduko dut.

#### a. OKM eta hizkuntzaren didaktika

Konpetentziak eskuratzean oinarritutako hezkuntza sistema honetan, azkenaldian hizkuntzen didaktikan ahozotasunaren gaitasunak eskuratzeko xedea da guztietan gailentzen dena, betidanik gure gizartea ahozko elkarreraginean oinarritu baita. Hori dela eta, ikasleek transmisiorako duten gaitasuna landu behar da eskolatik eta horretan oinarritu dut nire unitatea.

Gaitasun horri “Komunikatzeko gaitasuna” deritzo eta termino hori Hymes izeneko hizkuntzalariak sortu zuen XIX.mende erdialdean. Hizkuntzalari honek askok ikertu zuten folklorea eta hizkuntzaren garapenaren inguruan, gizakiok txikitatik ikasten baititugu hizkuntzak eta ikaskuntza hori besteekin elkarreraginean ematen da, harremanatzeko beharra baitugu. Haatik, dio Hymesek modu naturala bultzatu eta hizkuntzaren irakaspenak gaitasun linguistiko soiletik at eraman beharrean gaudela. Hymes (1962) ez da uste hau duen bakarra, Gumperz (1982) ere aburu berekoa baita. Komunikazioa mintzatzea baino zerbait gehiago denaren ideari eusten diote, batetik, arauak eta gizarte balioak partekatzea dela eta, bestetik, hizketa ekintzen bidez transmititutako kultur adierazpenetan parte hartzea dela argudiatzen baitute.

Hori dela eta Canale eta Swainek (1980 eta 1983) gaitasun komunikatiboa aztertzen lau esparru nagusitan bereiztea erabaki zuten:

1. Gaitasun gramatikala
2. Gaitasun soziolinguistikoa
3. Gaitasun estrategikoa
4. Diskurtso gaitasuna

Beraz argi ikusten da, hizkuntza bat bere testuinguruan eta elkarreraginean ikasi behar dela, modu honetara bai alderdi linguistiko bai ez-linguistikoak barneratuko baitituzte ikasleek. Gaitasun komunikatiboa garatzen duten ikasleak prest egongo dira hizkuntza hori hainbat testuinguru desberdinetan erabiltzeko, ez soilik hizkuntza aztertzeko. Azken finean, irakasleak ikasleak mundura atera eta gizarteratzeko behar dituzten tresneriez hornitzen ditugu, baina tresneria hori nola erabili erakusten ez badiegu, ez dute hasierako helburua lortuko.

Honek, beraz, erronka berria sortu zuen irakaskuntzan, metodologiaren alorrean ez baitzegoen oraindik gaitasun hori lantzeko teknika berezirik. Honakoak ziren ordu arteko metodologiak:

- Gramatika-itzulpena metodoa: Metodo tradizionala da eta elebiduna da itzulpenetan oinarritzen denez bi hizkuntza behar dituelako, batetik, ama hizkuntza eta bestetik, ikasi nahi dugun hori.

- Estrukturalismoa: Metodo hau Bloomfield eta Fríesen teoria linguistikoetan eta Skinnerren behaviorismoan inspiraturik dago. Metodo audiolinguala da eta lau fase bereizten dira:
  - entzumena eta ulermena
  - ahozko adierazpena
  - irakurketa
  - idazketa
  
- Metodo komunikatiboa: Metodo honen ezaugarri nagusia da eduki-funtzioak kontuan hartzen dituela, hau da, edukiak bere testuinguruan eta ikasleen interesak kontuan hartzen ditu. Besteak beste, edukiak honela lantzen dituzte:
  - Dramatizazioak
  - *Rol-playing*
  - Elkarrizketak
  - Hizkuntz jolasak
  - Talde lanak


Beraz, arazo horri aurre egiteko Communicative Language Approach (CLT) edo Metodo Komunikatiboa garatu zen, aurreko hiru metodoak baino arrakasta handiagoa lortu zuena (Littlewood, W.(1981)).

Euskal Herrira horretan aipatzen duten bezala 60-70 hamarkadan iritsi zen (Irureta Azkune, O. (2012/09/23)). Metodo honek gaitasun komunikatiboa era holistikoan lantzeko aukera ematen zuen, izan ere, ikasleak eguneroko edo ohikoak diren testuinguruetan murgiltzen ditu eta bertan daudela hizkuntzaren hainbat alderdi jorratzen dira, beti ere, momentuko beharren arabera.

---

Hizkuntzaren ikaskuntza bere kabuz emango da, beti ere, ikaslearengan komunikatzeko desira badago eta komunikatzeko xedea badago (Harmer, J. (2012, 85.orr)). Esandako guztia argi geratu dadin adibide bat jarriko dut: demagun gelan denda baten simulazioa egiten dugula, hortaz, ikasle bat dendaria eta beste bat eroslea izan beharko da. Bakoitzak bere rola garatzeko estrategiak bilatu beharko ditu. Estrategia horiek aurretiko ezagutzetan ez dituela konturatzen bada, horiek bilatu beharko ditu. Horretarako, irakasleak prestatuak izango ditu lagungarriak izango zaizkion esaldiak eta hiztegia, esaterako. Ikasleak irakasleak emandako teoria edo informazio hori segituan gordeko du bere memorian, badakielako horren beharra duela salerosketak egin ahal izateko, hortaz, motibazioa lortu dugu eta gainera intrinsekoa izango da. Behin ezagutzak eskuratu dituenean, praktikan jarriko ditu bere ikaskidearekin eta, honela, hizkuntza horren alderdi horietan trebatuko da. Azkenean, erabilerarekin eskuraturiko ezagutza eta gaitasun horiek aldi luzerako oroimenera igaroko dira, non aurretik zuen jakintzarekin erlazionatuko diren eta berriei lekua egingo dieten. Erabileraren ondoren, garrantzitsua da sortzen den feedbacka, izan ere, horrek egingo baitio ikasleari gaitasun horiek hobetzea eta hasierako helburua ahalik eta hobekien eskuratzea.

Horregatik, gure ikasleei horrelako testuinguruak eskaini beharko genizkieke ikasgeletan, honela, komunikatzeko xedea emango baitiegu eta katea martxan jarriko dugu:



2. Irudia: bost etapa horiek elkarlotuta daudela eta etengabeko mugimenduan daudela irudikatzeko diseinatu dudana irudia.

Ikasleak behar dituen ezagutza horietan sartuko litzateke ondare kultural materiagabea, izan ere, gure arbasoengandik jaso da eta haien elkarrekintzetatik sortua da. Ondare hori hizkuntzaren erabilera errealean irudia da eta bertatik ikasten dugu gizakiok txikitatik (Aznarez, M. eta Asiáin, A., 2012). Honen adibide garbiak dira sehaska kanta, gure aitaita eta amamei txikitan abestu zitzaizkienak guri txikitan abestu dizkigutenak baitira, batzuetan aldaketa txiki batzuekin baina berdinak azken finean.

Tamalez, gaur egun euskararen transmisioa ez da horrela eman historian zehar jasan dituen erasoengatik, hortaz, eskolako ikasle gehienek gurasoak ez dira euskaldunak. Beraz, nondik jasoko dute gure ikasleek ezagutza horiek? Nor erabiliko dute eredutzat?

Horretarako, belaunaldiz belaunaldi ahoz aho igorri den jakituria eta ohitura horiek guztiak ez galtzeko eta gure ondorengoei utzi ahal izateko, alegia, Nafarroako ondare kultural materiagabearen Artxiboa sortu zen non zenbait hizkuntzalari eta ikerlariek herriz herri ondare guzti hori bildu eta gizartearen eskura jartzen ari baitziren. Bildutako horretaz baliatu gaitzke

gure ikasleei benetako testuinguruak eskaintzeko eta euskara biziaren adibideak erakusteko, honela hizkuntza baten inguruan diharduten ezaugarri guztiez blai daitezten. Izan ere, Mónica Aznárez eta Alfredo Asiáinek idatziriko “Aplicaciones didácticas del patrimonio cultural inmaterial para la enseñanza de la competencia comunicativa” artikuluan argi azaltzen dute UNESCOk plazaratzen duela hizkuntzak ez direla OKMren ibilgailu hutsak, baizik eta OKM “direla” (apud. Coseriu,1992) gertakizun kultural eta historiakoak baitira, hitz egitearen ohitura berekiak baitira, hain zuzen ere.

Beraz, hizkuntzaz jabetzeaz gain, honen historiaz, ohiturez eta beste zenbait alorrez ere hornitzen ditugu ikasleak. Honetaz gehiago zehaztu da hurrengo atalean.

### **3.4. El Patrimonio Cultural Inmaterial y su didáctica**

Este capítulo tiene por objetivo establecer las bases que el profesorado debería saber para la enseñanza mediante el patrimonio cultural inmaterial.

Desde la segunda mitad del siglo XX hasta hoy en día el patrimonio cultural está considerado como un recurso social, cultural y económico que debemos proteger y conservar para las generaciones futuras (González Monfort, N. ,2008, p. 13).

Del mismo modo, Mónica Aznárez y Alfredo Asiáin (2013) argumentan varias razones por la que el Patrimonio cultural Inmaterial (PCI) debería estar presente en la educación: por un lado, como señalaba en el capítulo anterior, posee una gran importancia en la adquisición del lenguaje. Por otro lado, dado que tiene una naturaleza integral, es decir, multisensorial, cognitiva y emocional, proporciona las condiciones necesarias para trabajar la transversalidad y la integración de competencias.

A estos argumentos, se le podría sumar el desempeño que tiene en el desarrollo de actitudes críticas y reflexivas hacia el pasado y el presente, ya que como considera Neus González Monfort (2008) facilita que el alumnado pueda involucrarse de manera activa y constructiva en su medio social, cultural y político. Para ello hay que desarrollar nuevas programaciones donde el patrimonio cultural sea considerado un instrumento clave para incentivar la comunicación

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat



entre el alumnado y, de este modo, vayan descubriendo su identidad. Esta es la visión que he seguido para plantear la unidad didáctica, por ejemplo, al principio de la unidad he creado una actividad en la que el alumnado comprenderá lo que es el patrimonio cultural inmaterial mediante varias preguntas que tendrán que responder en grupos pequeños primero y después se abrirá el debate en clase. (ver 1. ERANSKINA)

Esa perspectiva del pci también la siguen tanto la UNESCO como distintos organismos ya sean el ICOM (Consejo Internacional de Museos, creado en 1946) o el COE (Consejo de Europa, creado en 1949), en los proyectos que desarrollan para la salvaguardia y la transmisión de este patrimonio.

También, el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte del Gobierno de España también ha publicado 3 unidades didácticas que están disponibles en su página web:

- Educación Infantil / Educación Primaria: “Los viajes de Patri”
- Educación Secundaria: “Mundo Inmaterial”
- Bachillerato: “Esencias”

Estas unidades forman parte del Plan Nacional de Educación y Patrimonio con el que quieren conseguir difundir y dar a conocer el PCI creando varios materiales didácticos para diferentes niveles.

Por ejemplo, en la unidad de Primaria se presenta el PCI mediante una conversación entre dos amigos y después van a conocer distintas costumbres de cada país ya que el grupo se va de gira. Hay que reconocer que se han preocupado por crear material adecuado para la edad del alumnado al que va dirigido y, también, es bastante divertido.

A parte de eso, se trabajan principalmente varias competencias como las sociales y cívicas y la conciencia y expresiones culturales. Aunque no cumplen con lo anteriormente mencionado, y es que han creado unas unidades que no están incluidas dentro del currículo, han tratado el PCI como un objetivo en sí mismo. Por eso, a pesar de ser un buen comienzo pues demuestra que

---

en España hay una gran devoción por llevar el PCI a las aulas, hay que seguir desarrollando unidades en las que se unifique el currículo y el PCI.

Eso es lo que he hecho con esta investigación, demostrar que los beneficios de la enseñanza de los contenidos del currículo utilizando el PCI, ya que esta herramienta nos proporciona la posibilidad de trabajar el civismo, el respeto y la integración social mientras aprenden a identificar y analizar el patrimonio que nos rodea. De esta manera, se darán cuenta de la riqueza cultural que se les ha sido transmitida y adquirirán las capacidades para poder comunicarla a las próximas generaciones. Así pues, hay que desarrollar, como bien he mencionado anteriormente, unos proyectos educativos que les ayuden tanto a encontrar su sitio en el mundo de una manera como en la adquisición de esas competencias. Eso se consigue mediante el trabajo y la reflexión acerca del medio, pues incentivará la participación activa y consciente en la sociedad (Monfort, 2008). Al trabajar esa búsqueda de respuestas, también se desarrollará la creatividad, puesto que no hay una única solución y no todas están escritas.

Está a la vista que es un proceso bastante complejo y por eso los profesionales de este ámbito deberíamos tener siempre en mente que el estudio del medio debería favorecer que el alumnado analice la realidad e interactúe con el medio físico y social en el que se encuentra para buscar la información que le ayude a comprender. En esa búsqueda tendrá que observar el pasado para comprender el tiempo histórico y comenzará a formular preguntas históricas (hipótesis, problemas, dudas...) que le guiarán en el camino. Gracias a esto será capaz de identificar las evidencias históricas que podemos encontrar en el medio físico y se adentrará en el método histórico donde aprenderá a analizar diversas fuentes de información, tanto primarias como secundarias. A lo largo de todo este proceso desarrollará un gran conocimiento del lenguaje y el vocabulario histórico, lo que le ayudará a comunicar las ideas cuando tenga que presentar las investigaciones realizadas y el empleo de la información. Otra habilidad que adquirirá será la empatía, más concretamente la empatía histórica, pues para entender el modo de vida en las sociedades pasadas tendrá que situarse allí mentalmente, lo que le ayudará a valorar ese patrimonio cultural heredado y, además, sentirá la necesidad de protegerlo y conservarlo para las generaciones futuras.

Por otro lado, según Monfort (2008, p. 34) habría que tener también varios criterios para la selección del contenido en la didáctica del patrimonio:

- La transmisión: el contenido tiene que reflejar tanto el pasado como el presente y, además, debería ser proyectado hacia el futuro, pues es aquello que simboliza lo que la sociedad quiere que perdure en el tiempo.
- La trascendencia: un contenido que simbolice algo más que su propio significado, esto es, que contenga, entre otros, un conjunto de valores, de creencias y/o tradiciones.
- La familiaridad: debe ser integrante del imaginario colectivo de una sociedad, comunidad o grupo.
- La participación: el patrimonio no pasa de generación en generación por él mismo, necesita agentes que se encarguen de recibirlo, conservarlo y transmitir. Por eso, tenemos que procurar que el contenido implique el desarrollo de esas capacidades. El alumnado sea capaz de seleccionar, tomar significados y transmitirlo a fin de que se impregne de la sensación de simbolizar la identidad cultural y de ciudadanía de una comunidad o sociedad.

Monfort (2008, p. 34) tampoco se olvida de establecer los pasos graduales para la introducción y secuenciación de los elementos del patrimonio en el proceso de enseñanza-aprendizaje: en primer lugar, el alumnado debe comprender que el conocimiento histórico se forma gracias a las fuentes que forman parte del patrimonio cultural. Por lo que, descubrirá las posibilidades que le proporciona el empleo del patrimonio más cercano. En segundo lugar, habiendo entendido el funcionamiento de ese uso, comenzará a experimentar con ello y se percatarán del valor de lo que han sido transmitidos. Al final, sentirán que aún queda mucho por descubrir y podrán seguir con sus propias investigaciones.

### **3.5. El curriculum de quinto de primaria**

---

En este apartado justificaré los contenidos de la unidad didáctica propuesta analizando el apartado de la enseñanza de la lengua vasca en el currículo de las enseñanzas de educación primaria en la comunidad foral de Navarra<sup>1</sup>. Me centraré la parte que corresponde al modelo D y al nivel de quinto de primaria ya que la propuesta didáctica se ha puesto en marcha en ese nivel y se ha basado en el currículo de la LOMCE para adecuarnos a las expectativas que la ley educativa precisa para ese nivel.

Si leemos las introducciones a la “lengua y literatura vasca” tanto en el modelo D como en el A, encontramos una mención clara en el final de la introducción que rige el modelo D hacia el patrimonio cultural en el que dice lo siguiente:

“El uso oral del euskera propio del alumno, el uso de su variedad dialectal o habla local, si lo tiene, valora y potencia el valor del patrimonio cultural que supone esta variedad de registros del euskera.”

Con esta afirmación nos da a entender que los alumnos deberían practicar y trabajar el empleo oral del euskera y matiza, además, que no debería ser solo el lenguaje oficial sino que el dialectal también. Es

Como los contenidos están divididos por bloques a continuación explicaré lo que se cumple de cada uno. El primer bloque se titula: la “Comunicación oral: escuchar y comprender, hablar y conversar”. En este bloque el alumnado ha conseguido escuchar y comprender textos orales de tipo instructivo e informativo de la mano de sus propios abuelos como de varios testigos que la web del Archivo del patrimonio Inmaterial de Navarra proporciona. También, ha conseguido ser capaz tanto de responder de forma correcta a las preguntas referidas a la comprensión literal, interpretativa y crítica del texto, como de utilizar la información recogida, gracias a varias actividades que he desarrollado en las que he creado la necesidad de buscar la información para rellenar, entre otros, un crucigrama. Respecto a los contenidos de la parte de “hablar y conversar” se han conseguido todos puesto que a lo largo del proyecto he creado varios puntos de discusión y al final del proyecto tienen que grabar la elaboración de su pincho. Para la

---

<sup>1</sup> BON número 174, 5 de septiembre de 2014

preparación de estas presentaciones se les ha dado varias consignas que han tenido que tener en cuenta y en ellas se le da bastante importancia a la organización y planificación del discurso instructivo y a la comprensión y expresión del mensaje tanto verbal como no verbal.

El segundo bloque es “comunicación escrita: leer”. Para la realización del proyecto final los alumnos han tenido que leer varios textos informativos sobre la digestión y el tipo de nutrientes que encontramos en los alimentos a fin de crear un “pincho equilibrado”. Por tanto, el alumnado ha trabajado la comprensión de los textos mediante varias actividades que están relacionadas con el tercer bloque “Comunicación escrita: escribir”, pues han demostrado la comprensión mediante la producción de esquemas y mapas conceptuales. Además, para las discusiones que he mencionado en el párrafo anterior y la realización del proyecto final han tenido que reflexionar acerca del contenido de la información recibida en los textos. En este caso, tras identificar las características de cada alimento que iban a usar a la hora de elaborar su plato, han tenido que tener en cuenta si el conjunto era equilibrado y si no lo era han debido tomar las decisiones pertinentes. Por eso, han tenido que escribir tanto la receta como una pequeña descripción de las propiedades nutritivas de su pincho y gracias a ello han desarrollado las capacidades para producir tanto textos instructivos como informativos. Con el propósito de que esas producciones fueran coherentes y ricos en vocabulario, he diseñado varias actividades con los testimonios de la página web que he mencionado previamente, podemos retomar el ejemplo del crucigrama para ilustrar un modo de adquisición de nuevo vocabulario.

Por último, el conocimiento de la lengua que se debería alcanzar en este nivel se especifica en el cuarto bloque. En esta área me gustaría remarcar la variedad lingüística a la que me he referido brevemente en la introducción de este capítulo, pues al trabajar con testimonios de distintas localidades del norte de Navarra han conseguido conocer y valorar positivamente las variedades dialectales y reconocer los rasgos generales. Asimismo, al analizar la lengua en un contexto real y cotidiano, han podido reconocer en la práctica la importancia del orden en los elementos de una oración para que esta resulte coherente y aplicarlo correctamente.

Al mismo tiempo, durante todo el proyecto el alumnado ha trabajado las TICs, ya que desde el primer momento creé un PADLET que es una plataforma de internet en la que puedes crear un tablero para que el alumnado publique información interesante relativa al tema en cuestión. De esta forma, el alumnado en colaboración ha completado un marco teórico sobre la alimentación y ha compartido sus investigaciones sobre la alimentación de su familia con los compañeros. El texto instructivo de su receta la han realizado en la aplicación Google Drive y han aprendido a usar las herramientas de corrección lingüística del programa. Del mismo modo, han desarrollado los conocimientos necesarios para adjuntar ese documento en la aplicación Google Classroom, a fin de que la profesora pudiera corregir el documento final.

En conclusión, la propuesta didáctica que se hace en este trabajo cumple con los requisitos impuestos por la LOMCE para el currículo educativo, puesto que mediante las actividades diseñadas el alumnado ha sido capaz de alcanzar las habilidades y los conocimientos requeridos para este nivel por las leyes educativas de Navarra.

## **4. UNITATE DIDAKTIKOA**

### **4.1. Sarrera**

Unitate honetan ikasleek euskarazko jarraibide testu bat nola egiten den eta elikadura osasuntsuaren ezaugarriak identifikatzeko gaitasuna garatu dute, beraien identitateak finkatzen dituzten bitartean. Guzti hau ondare kultural materiagabearen parte diren testigantzak darabilten ariketen bidez lortu dugu.

### **4.2. Justifikazioa**

Ondare kultural materiagabearen erabilerak Nafarroako curriculumean xedatzen diren hizkuntza gaitasunarekin erlazionatutako alor gehienak jorratzen ditu, hala nola, euskara batuaren eta euskalkien ezagutza eta eguneroko testuingurutan aurki dezaketen hizkuntza, Nafarroako hainbat herritako lekukoek testigantzak entzungo eta ariketen bidez bertan agertutako hiztegi eta hizkuntza egiturak aztertuko dituztelako.

Komunikazio gaitasunaren barne dagoen adierazpena ere lantzen duen proiektua da, batetik, adierazpen idatzia jarraibide testu baten sorrerarekin landuko da, lekukoek azalpenak eta egun ditugun gramatika eta egituratze arauak aztertzeari esker euren testuak sortuko baitituzte. Bestetik, mintzamina ere lantzen da, baita honekin batera agertzen diren elementu ez-linguistikoak ere, izan ere, pintxo horren prestaketa kideei erakutsi beharko diete bideo batean egun ditugun sukaldaritzako programak eredu hartuz.

Teknologia berrien erabilera ere proiektu osoan zehar bermatua dagoela esan beharra dago, izan ere, lehenik eta behin, ikasleek bildutako informazioa partekatzeko Padlet bat sortuko du irakasleak eta haiekin duen Google Classroom plataforman argitaratuko du linka. Padletean ikasleek euren familien informazioa edota gaiaren inguruan topatu duten beste edozein berri parteka dezakete nahi dutenean eta kideen argitalpenak komenta ditzakete. Classroom plataforma, aldiz, egin behar dituzten lanak bidaltzeko erabiliko dugu. Bigarren, Nafarroako Artxiiboak lekukoek testigantzak webgune batean dituen, bertara joko dugu informazio

iturriak hartzera. Ondoren, hiztegia ikasteko sarean aurki daitezkeen hainbat aplikazioren erabiliko dituzte, Quizziz eta gurutzegramak sortzeko programa, besteak beste. Azkenik, pintxoaren prestaketa grabatzeko bideo kamerak, mugikorrek edo antzerako teknologiak erabiliko dituzte eta ondoren, grabaketa horiek editatu beharko dituzte Wevideo bezalako editatzeko programak erabiliz. Hortaz, teknologien alorrean ere zenbait trebezia eskuratuko dituzte.

Gainera, gaia pertsonalagoa bihurtuko du informazio historiko orokorra jasotzeaz gain, bakoitzak bere senideei elikaduraren inguruan galdetzean bere familiaren garai hartako testigantza zuzena jasotzen ariko baita eta informazio horren sailkatze eta gordetze prozesu mentalak hobekiago arituko dira, bere historiarekin harreman zuzena duen informazioa izango baita bere identitatea egituratuko duena. Aurreko kapituluetan aipatutako Ausubelen “ikaskuntza esanguratsua” ziurtatuko da OKMren erabilerari esker, Brunerren “perfink” kontzeptuak berrezkuratuz, sentimendua eta pentsamendua batzen baititu eta batasun horrek teoria estrukturalistek aurkezturiko egitura mentalean ezagutza eta gaitasunak aurreko jakituriarekin bat egin eta aldi luzerako finkatzea ahalbidetuko baitu. Gauzak honela, ikasleen motibazio intrintsekoa sustatuko dute orokorrean gizakion kezka nagusiak nondik gatozen baita, horren adibide argia da giza eboluzioaren inguruan egiten dabilzan ikerketa guztiak.

Laburbiltzeko, OKM darabilen unitate didaktiko honek, ikasleei digestio aparatuen funtzionamendua ulertzen eta elikagai motak identifikatzen lagunduko die helburu praktiko baten bidez, pintxo orekatu bat burutzea izango dena. Ezin dugu ahaztu pintxo horren prestaketarako haien jatorrien inguruan ikertu beharko dutela eta ezagutza hori egungo pintxo kontzeptuarekin bateratzeko gaitasuna eskuratuko duela.

### **4.3. Testuingurua**

#### **1. Eskola**

Paz de Ziganda Ikastolan aurrera eraman da proiektu hau, beraz, D ereduko ikastetxeetarako prestatua dago, nahiz eta beste eredu batzuetarako ere aplikagarria izan daitekeen, beti ere, ikasleek duten euskara maila kontuan izanik, lekuko testigantzak euskalkian baitaude eta

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat



euskararekin harreman zuzenean ez dagoen haur batek hori ulertzeko zailtasunak izan baititzake.

## 2. Ikasleak

LH 5.mailako ikasleentzako prestaturiko unitatea da. Gai honen aurretik ikasleek digestio aparatua eta elikagai moten inguruko ezagutza minimoak beharko dituzte. Euskara mailari dagokionez, oinarritzko aditz egiturak jakin beharko dituzte, unitate honetan agintera landuko baitugu.

### **4.4. Helburu didaktikoak**

#### 1. Proiektuaren helburu orokorrak:

- a. Ondare kultural materiagabearen ezaugarriak identifikatu.
- b. Ondare kultural materiagabearen transmisioaren beharra balioetsi.
- c. Euskalki desberdinen ezaugarriak identifikatu eta ulertu.

#### 2. Euskara helburuak:

##### a. Idatzia:

- Jarraibide testu bat ekoizteko beharrezkoak diren elementu eta ezaugarriak barneratu.

##### b. Ahozkoa:

- Agurtzen du eta gaia aurkezten du.
- Bolumen, erritmo eta doinu zuzenak erabiltzen ditu.
- Ikuste-kontaktua mantentzen du, gorputz adierazpen egokia erabiliz.

#### 3. Teknologia gaitasunak

- a. Google Drive erabiliz errezeta baten aurkezpena egin.

#### 4. Ulermena

- a. Irakur ulermena
- b. Informazioaren trataera: gaia eta azpigaia.
- c. Entzumen ulermena

5. Natur helburuak:
  - a. Elikagai moten eta digestio prozesuaren muralak egin.
  - b. Elikagai motak identifikatu eta dieta orekatua eta digestio prozesua barneratu.
6. Kideen arteko kohesioa lortu
  - a. Elkar menpekotasun positiboa
  - b. Rolak banatu eta kudeatu
  - c. Bakarkako erantzukizuna lortu
  - d. Konpromezuen betetze maila landu.
7. Aurrez aurreko komunikazioa
8. Entzun
9. Norberaren nahiak edo beharrak adierazi.
10. Gatazkak konpondu.

#### **4.5. Edukiak**

1. Proiektu honen eduki propioak:
  - a. Ondare kulturala
  - b. Ondare kultural materiala eta materiagabea
2. Txanelako edukiak:
  - a. Ingurumena:
    - Elikagai eraikitzaileak
    - Elikagai energetikoak
    - Elikagai erregulatzailak
    - Dieta orekatua
    - Elikadura arazoak
    - Otorduak, ospakizun eta komunikaziorako une eta gune
  - b. Hizkuntza:
    - Gaiari buruzko hiztegia: elikagaiak, sukaldeko tresnak, jakien prestaketa.
    - Euskalkietako hiztegia: behizagia, almote, tripota, ahia, oladua, gazitza, pozalak, ferratak, mina eta kokelak.

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

- Otordu-giroko esamolde, esaera eta abestiak
- Herri-hizkerako esaera, esamolde eta ditxoak
- Eskemak egiteko urratsak:
- Testuko gaia, azpigaiak eta ideia nagusiak bereiztea.
- Ideien arteko erlazioak aurkitzea
- Era grafikoan adieraztea
- Jarraibide-testuak ulertzea: errezetak
- Taldean hitz-egitea: norberaren bizipenen kontaketa
- Errezetak:
  - (1) Helburua, elementuak eta egitura
  - (2) Aginduak betetzeko moduak
  - (3) Hiztegi zehatza: hagaxka, labana, apar-burruntzia...
  - (4) Denbora antolatzaileak: lehendabizi, ondoren, azkenik...
  - (5) Aditzak: irabiatu, xigortu, nahastu, jarri...

#### **4.6. Metodologia**

Paz de Ziganda Ikastolan tutore praktiketan nenbilenez, bertan proiektu hau jartzeko aukera eman zidaten. Orduan, haien metodologia aktiboan oinarritzea erabaki nuen, teknika horiek ikaslearen motibazio eta, ondorioz, partaidetza aktiboa eta ikaskuntza esanguratsua gehien sustatzen dituztela baitirudit.

Honela bada, proiektu osoaren ardatza Proiektuetan Oinarritutako Metodologian oinarritu dut, Xabier Arregik HIKHASI aldizkarian argitaraturiko artikuluan aipatzen diren den moduan, irakaskuntza mota honek ikaskuntzari dakarzkion onurak izugarriak baitira:

Batetik, ikaslearen rol aktiboa sustatzen denez, ikasleak euren ezagutzaren eraikitzaile eta “berreraikitzaile” bihurtzen dira, hortaz, ikaskuntzarekiko duten atxikimendua potentzialki

---

bermatzen da eta honi esker jarrera ikertzailea garatuko dute, ikasten ikasteko teknikak garatzen dituzten aldi berean.

Bestetik, proiektuen bidez lantzeak, ikasleei benetako arazoan aurrean jartzea eta horiei erantzuna emateko irtenbideak aurkitzean datza eta horrek ikasleak motibatzen ditu, garatu behar dituzten trebeziak eta bildu beharreko informazioak ondoren egin beharko duten zerbaitetarako balioko direnaren ziurtasuna baitute. Beraz, ikasleek ahalegin guztiak egingo dituzte eta aurretik aipaturiko jarrera ikertzaileaz probestuko dira, irakasleak proposaturiko erronka horri aurre egiteko.

Hemen garatu dudan unitate honen erronka aiton-amonen elikadurako osagaiekin eginiko pintxo orekatu bat lortzea izango da. Horretarako, lehendabizi elikadura osasuntsua zertan datzan ikertu beharko dute, hain zuzen ere, elikagai motak identifikatu eta digestio prozesuaren urratsak aztertuko dituzte. Ondoren, aiton-amonen elikaduraren inguruko informazioa bildu beharko dute, horretarako, haiekin kontaktuan jarri eta galderak egin beharko dizkiete.

Informazio bilketa horretan sartuko da ondare kultural materiagabearen erabilera, izan ere, haien aiton-amonei galdetzean ezagutzen ahoz ahoko transmisioaren jardunean baitaude eta jasotako hori haien beharretarako moldatu beharko baitute. Halere, prozesu horren inguruan hitz egiten ez badiegu eta horren inguruan hausnartzera bultzatzen ez badiegu, ez dira inoiz ohartuko haiek ere honelako ariketa sinpleekin OKMren zabalkuntzari lagun diezaieketela eta benetan informazio hori garrantzitsua dela. Gainera, haien aiton-amonen informazioa izanik, azkarrago kokatuko dira denbora-espazio continuumean eta, modu honetan, gizartearen historia eta haien familiarena erlazionatu ahalko dituzte eta gelakoekin haiek eskuraturiko informazioa partekatzean, gainerako datuak ere antzekoak direla konturatuko dira. Honek aspaldiko testuinguru batean kokatzen lagunduko die, baita gizartean beraien lekua topatzen ere.

Proiektuaren ardatzarekin jarraituz, behin data-basea eraikia dutela, pintxoan pentsatzen hasiko dira eta momentu honetan hizkuntzarekin harreman zuzenagoa duen gaitasun baten galeraz jabetuko dira: errezeta testuaren sorrera. Konturatuko dira, haien aiton-amonak jaki baten prestaketaren kontaketa egiterakoan, oinarrizko egitura bat jarraitzen zutela, baina

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

nahiko traketsa dela haiek ez baitziren eskolara joan. Horregatik, jarraibide testuen ezaugarriak bilatu beharko dituzte, hala nola, aditzen egitura, hiztegia eta denbora antolatzaileak. Hau jorrazeko irakasleak erabili ditzakeen zenbait ariketa sortu ditut, beti ere, Nafarroako OKM erabiliz.

Jarduera horien garapenean erabiliko den irakaskuntza didaktika eredu kooperatibista da, hau da, ikasleak talde txikietan antolatuak egongo dira eta talde lanarekin aurrera atera beharko dituzte proposaturiko ariketak. Honela bada, berebiziko garrantzia izango du taldean kide bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanik rolak modurik egokienean banatzea, etekin handiena lortzeko asmoz.

Ariketa horien bidez jarraibide testuaren bereizgarriak barneratu dituztenean, haien pintxoaren errezeta idazteko garaia iritsiko da. Momentu horretan bakoitzak berea idatzi behar badu ere, ondoren zuzenketa modu kooperatiboan egin daiteke, hau da, bakoitzak bere kidearen testua zuzen dezake. Idatzia bukatutakoan autoebaluazioa bideratzea ere garrantzizkoa da, momentu horretan ezagutuko baitute haien buruarekiko exijentzia maila.

Azkenik, pintxo horren ahozko azalpena prestatu beharko dute. Momentu honetan, elementu ez-linguistikoei arreta berezia eskainiko zaie, batetik, ahotsarekin erlazioa dutenak, hots, bolumena, erritmoa eta doinua; bestetik, kinestesia gogoan izan behar dute, hau da, gorputzaren mugimenduak kontrolatzeko gaitasuna garatu beharko dute. (Peñafiel Pedrosa, E. eta Serrano García, C., 2010).

Modu berean, aurretik ikasitako edukiak praktikan jarri beharko dituzte, horiek barneratzen dituztela erakusteko. Helburu guztiak ahalik eta hobekien bete ditzaten ebaluatzeko erabiliko nuen errubrika eman nien, honela, bakoitzak jakingo zuelako zehazki zer eskatzen zitzaion lortu nahi zuen nota erdiesteko. Ikasleek asko eskertu zuten hori eta ikasleek grabatutako euren pintxoaren aurkezpen bideoak ikusi ondoren, erabaki bikaina izan zela esan beharra dut.

Azkeneko egunean pintxo festa antolatu genuen eta bakoitzak bere pintxoak ekarri zituen ikaskideek dasta zitzaten. Pintxo horien atzean istoria bat egotean ikasleak horren inguruan galdetzen zuten jan aurretik, honela, marko teorikoan aipatu dugun bezala, haien ikaskideekin



- c. Heste fasea
- 4. Gure dieta aztertu
  - a. Zer da dieta orekatua?
  - b. Eskolako menua aztertu
  - c. Elikagai motak
- 5. Gure aitona amonena dieta aztertu
  - Gu kazetari. Elikagaien inguruko informazio bilduma areagotu beharra dago. Goazen gure aitona amonak elkarriketatzera.
- 6. Jarraibide testua
- 7. Janariarekin loturiko ohiturak eta abestiak
- 8. Etxean egina
  - a. Familiako errezeta: idatzi, prestatu eta grabatu
- 10. Gure aitona amonena jaten zituzten elikagaietan oinarritutako pintxoak pintxo-festarako.

Hona hemen jardueren banan banako azalpen zehatza:

Proposamenaren izenburua	Maila	Arloa
<b>A zer gosea!</b>	<b>5</b>	<b>Gizarte, zientzia eta euskara</b>

<b>Jardueren Sekuentziazioa</b>		
<b>1. Jarduera:</b>	1. Gaur egun zer jaten dugu? Zer uste duzue jaten zutela gure aiton-amonek? Zer dakizue honen inguruan? Zeinek kontatu dizue? Has zaitezte zuen aiton-amonekin harremanetan jartzen eta informazioa eskuratzen. Proiektuaren azalpena.	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>		Proiektuaren nondik norakoak barneratu
<b>Prozesuaren metodologiaren azalpena</b>	Jardueran erabiliko ditugun materialak/ iturriak	Preziko aurkezpena: <a href="http://prezi.com/znwg6-8qv2je/?utm_campaign=share&amp;utm_medium=copy&amp;rc=ex0share">http://prezi.com/znwg6-8qv2je/?utm_campaign=share&amp;utm_medium=copy&amp;rc=ex0share</a> Irakasleak sorturiko errezetaren pauso eta bideoak.(gomendagarria)
	Irakasleak zer egingo du/zertarako	Proiektuaren pausoak ongi ulertzen ahaleginduko da, ondoren horiek ongi betetzeko, eta galderarik badu galdetu egingo du.
	Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.	Irakasleak proiektuaren nondik norakoak azalduko dizkio ikasleari eta horiek ongi islatzeko berak bere azken pintxorako eman behar izan dituen pausoak azalduko dizkie. Horretarako, aurretik bideoak grabatu eta errezetaren fitxa bete beharko du.
<b>Helburuak</b>		Proiektuaren nondik norakoak barneratzea
<b>Jarduera Deskribapen orokorra eta izenburua</b>		Sarrerako jarduera honetan proiektuaren aurkezpena egingo dugu Prezi programa erabilia. Honetaz gain, irakasleak proiektua aurretik egin dezake eta honela ikasleei erakutsi bukaeran lortu beharreko helburuak. Honek asko laguntzen ditu irakasleak, izan ere, motibazioa piztu eta eredu bat oinarri izanik horren gainean euren irudimenaz baliatuz beraien proiektua osa baitezakete.





<b>2. Jarduera:</b>		Ondare kultural materiagabearen garrantzia
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b> Ebaluazio irizpideak. <b>Jardueraren bitartean ikasleak zer ikasiko duten zehazten dut</b>		Ondare kultural materiagabearen (OKM) ezaugarriak identifikatzen ditu Ondare kultural materiagabearen garrantziaz jabetzen da
Prozesuaren metodologiaren azalpena	Jardueran erabiliko ditugun materialak/iturriak	Ondare kultural materiagabearen fitxa (Eranskinak atalean: 1. Eranskina) Arbela digitala
	Ikasleak zer egingo du/zertarako	Ikasleek hainbat hitz gakoren esanahia topatu beharko dute eta OKMren inguruan hausnarketak egin beharko dituzte.
	Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.	Jardueretan zehar gidatuko ditu eta ikasleak OKMren inguruko hausnarketak egitera bultzatuko ditu hainbat modutara: taldetxoetan galderen erantzunak adosteko eskatuz edota lagundu diezaiekeen galdera gehigarriak eginez.
<b>Helburuak</b>		Ondare kultural materiagabearen ezaugarriak identifikatu Ondare kultural materiagabearen garrantziaz jabetu
Jarduera Deskribapen izenburua	orokorra eta	Ondare kultural materiagabea zer den jakiteko galderak erantzuten joango dira taldeka eta ondoren talde handian erantzun horiek eztabaidatuko ditugu.

3. <b>Jarduera:</b>	<p>Digestioa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a. Aho fasea</li> <li>b. Urdail fasea</li> <li>c. Heste fasea</li> </ul>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	<p>Digestio prozesua barneratu du.</p> <p>Elikagai moten eta digestio prozesuaren muralak egin ditu.</p>	
Prozesuaren metodologiaren azalpena	<p>Jardueran erabiliko ditugun materialak/iturriak</p>	<p>5.mailako Txanelako 4.unitatea (eta horrela bizitzen gara..): 43,45 eta 48.orrialdeak</p> <p>Koloretako hiru kartulina</p> <p>Errotulagailuak</p>
	<p>Ikasleak zer egingo du/zertarako</p>	<p>Ikasleak dagokion testua irakurri beharko du eta horren eskema egin beharko du ideia nagusiak kontuan izanik. Ondoren gelakideekin eskema hori adostu eta denen artean osatua den bat sortu beharko dute.</p>
	<p>Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.</p>	<p>Irakasleak taldeak banatuko ditu eta bakoitzari irakurri beharreko testua zein esan beharko dio. Ondoren taldeetan daudela bertan sortzen diren galderak erantzun beharko ditu, ikasleak konturatzeko benetan garrantzitsuak diren ideiez.</p> <p>Azkenik, kartulinak banatuko dizkie.</p>
<b>HELBURUAK</b>	<p>Digestio prozesua barneratu.</p> <p>Elikagai moten eta digestio prozesuaren muralak egin.</p>	
Jarduera	<p>Lehendabizi taldeak banatuko ditugu eta talde bakoitza toki batean jarriko da lanean.</p> <p>Ondoren, talde bakoitzari digestio prozesu bat egokituko zaio eta horren inguruko testua irakurri beharko dute. Norbaitek arazoak izanez gero, ideia</p>	

	<p>nagusiak ateratzeko 18 eta 19 orrialdeak irakur ditzake.</p> <p>Behin testua irakurria dutela eta ideia nagusiak dituztela, bakarka eskema bat egingo dute eta ondoren taldean eskema horren egitura adostuko dute.</p> <p>Adostua dutenean, eskemari begiratu bat eman eta feedback-a eskainiko diegu.</p> <p>Azkenik, koloreko kartulina bat banatuko zaie euren eskema garbira pasatzeko.</p>
--	---

<b>4. Jarduera:</b>	<p>Gure dieta aztertu</p> <p>a. Zer da dieta orekatua?</p> <p>b. Eskolako menua aztertu</p> <p>c. Elikagai motak</p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	<p>Elikagai motak identifikatu eta dieta orekatua barneratu.</p> <p>Elikagai moten eta digestio prozesuaren muralak egin.</p>	
Prozesuaren metodologiaren azalpena	Jardueran erabiliko ditugun materialak/iturriak	<p>5.mailako txanelako 4. unitatea (eta horrela bizitzen gara..): 17,20, 22, 23, 28 eta 29.orrialdeak</p> <p>Koloretako hiru kartulina</p> <p>Errotulagailuak</p> <p>Janari dendetako aldizkariak</p> <p>Guraizeak</p>
	Ikasleak zer egingo du/zertarako	<p>Ikasleak dagokion testua irakurri beharko du eta horren eskema egin beharko du ideia nagusiak kontuan izanik. Ondoren gelakideekin eskema hori adostu eta denen artean osatua den bat sortu beharko dute.</p>
	Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio	<p>Irakasleak taldeak banatuko ditu eta bakoitzari irakurri beharreko testua zein esan beharko dio. Ondoren taldeetan daudela bertan sortzen diren</p>

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

	ikasleari.	<p>galderak erantzun beharko ditu, ikasleak konturatzeko benetan garrantzitsuak diren ideiez.</p> <p>Azkenik, kartulinak banatuko dizkie eta, behin eskema egina dutenean, bertan aldizkarietatik moztutako adibide batzuk itsasteko eskatuko die.</p>
<b>HELBURUAK</b>		<p>Elikagai motak identifikatu eta dieta orekatua barneratu .</p> <p>Elikagai moten eta digestio prozesuaren muralak egin.</p>
<p>Jarduera</p> <p>Deskripabean orokorra eta izenburua</p>		<p>Lehendabizi taldeak banatuko ditugu eta talde bakoitza toki batean jarriko da lanean.</p> <p>Ondoren, talde bakoitzari elikagai mota bat egokituko zaio eta horren inguruko testua irakurri beharko dute. Norbaitek arazoak izanez gero, ideia nagusiak ateratzeko 18 eta 19 orrialdeak irakur ditzake.</p> <p>Behin testua irakurria dutela eta ideia nagusiak dituztela, bakarka eskema bat egingo dute eta ondoren taldean eskema horren egitura adostuko dute.</p> <p>Adostua dutenean, eskemari begiratu bat eman eta feedback-a eskainiko diegu.</p> <p>Azkenik, koloreko kartulina bat banatuko zaie euren eskema garbira pasatzeko.</p>

<b>5. Jarduera:</b>		Gure aiton amonen dieta aztertu Gu kazetari. Elikagaien inguruko informazio bilduma areagotu beharra dago. Goazen gure aiton-amonak elkarrizketatzera.
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>		Aiton-amonen dieta aztertzen du
Prozesuaren metodologiaren azalpena	Jardueran erabiliko ditugun materialak/ iturriak	Eranskinetako alderaketa taula (2. Eranskina)
	Ikasleak zer egingo du/zertarako	Ikasleak bere aiton-amonak elkarrizketatu egin beharko ditu eta alderaketa taula bete beharko du
	Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.	2-4-8 teknikaren funtzionamendua azaldu beharko die ikasleei eta talde aldaketak egiteko garaiak argi finkatuko ditu musika erabiliz, adibidez. Taldea osoan lan egitean hitz-egiteko txandak errespetatzen direla ziurtatu beharko du.
<b>HELBURUAK</b>		Aiton-amonen dieta aztertu
Jarduera		Ikasleek lehendabizi taulan beraiei dagokien datuak bete beharko dituzte eta etxean aiton-amonak honen inguruan elkarrizketatzeko eskatuko diegu, ondoren taula bete dezaten. Behin taulak osatuak daudela, 2-4-8 teknika erabiliko dugu eta hori honetan datza: ikasleak lehenengo bikoteka ondoren laukoteka eta azkenik 8ko taldetan bilduta euren aiton-amonen erantzunak alderatuko dituzte. Bukatzeko talde osoan lortutako ondorioen inguruan hitz egingo dugu.

<b>6. Jarduera:</b>	Jarraibide testua						
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	Jarraibide testu bat ekoizteko beharrezkoak diren elementu eta ezaugarriak barneratu ditu. Euskalki desberdinen ezaugarriak identifikatu eta ulertu ditu						
Prozesuaren metodologiaren azalpena	<table border="1"> <tr> <td data-bbox="438 672 730 945">Jardueran erabiliko ditugun materialak/iturriak</td> <td data-bbox="730 672 1437 945">Eranskinetako orria (4.Eranskina) Nafarroako Artxiboko bideoak (eranskinean zehaztuta dago esteka) Arbela digitala Ordenagailuak</td> </tr> <tr> <td data-bbox="438 945 730 1354">Ikasleak zer egingo du/zertarako</td> <td data-bbox="730 945 1437 1354">Ikasleek arreta guztia jarri beharko dute bideoa entzutean bertan esaten dena ongi ulertu eta esaldiak antolatzeke. Ondoren, jarraibide testuetako ezaugarri diren aditz moten egitura ulertu beharko du eta sortzen zaizkion zalantzak galdetu beharko ditu. Ostean jakintza horiek testuaren berridazketan aplikatu beharko ditu.</td> </tr> <tr> <td data-bbox="438 1354 730 1585">Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.</td> <td data-bbox="730 1354 1437 1585">Lehendabiziko bideoa jarri beharko du eta behar den momentuetan gelditu edota mantsoagotu beharko du ikasleen beharretara egokitzeko, gelan entzumenaren ulermen maila desberdinak egongo direlako.</td> </tr> </table>	Jardueran erabiliko ditugun materialak/iturriak	Eranskinetako orria (4.Eranskina) Nafarroako Artxiboko bideoak (eranskinean zehaztuta dago esteka) Arbela digitala Ordenagailuak	Ikasleak zer egingo du/zertarako	Ikasleek arreta guztia jarri beharko dute bideoa entzutean bertan esaten dena ongi ulertu eta esaldiak antolatzeke. Ondoren, jarraibide testuetako ezaugarri diren aditz moten egitura ulertu beharko du eta sortzen zaizkion zalantzak galdetu beharko ditu. Ostean jakintza horiek testuaren berridazketan aplikatu beharko ditu.	Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.	Lehendabiziko bideoa jarri beharko du eta behar den momentuetan gelditu edota mantsoagotu beharko du ikasleen beharretara egokitzeko, gelan entzumenaren ulermen maila desberdinak egongo direlako.
Jardueran erabiliko ditugun materialak/iturriak	Eranskinetako orria (4.Eranskina) Nafarroako Artxiboko bideoak (eranskinean zehaztuta dago esteka) Arbela digitala Ordenagailuak						
Ikasleak zer egingo du/zertarako	Ikasleek arreta guztia jarri beharko dute bideoa entzutean bertan esaten dena ongi ulertu eta esaldiak antolatzeke. Ondoren, jarraibide testuetako ezaugarri diren aditz moten egitura ulertu beharko du eta sortzen zaizkion zalantzak galdetu beharko ditu. Ostean jakintza horiek testuaren berridazketan aplikatu beharko ditu.						
Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.	Lehendabiziko bideoa jarri beharko du eta behar den momentuetan gelditu edota mantsoagotu beharko du ikasleen beharretara egokitzeko, gelan entzumenaren ulermen maila desberdinak egongo direlako.						
<b>HELBURUAK</b>	Jarraibide testu bat ekoizteko beharrezkoak diren elementu eta ezaugarriak barneratu. Euskalki desberdinen ezaugarriak identifikatu eta ulertu						

<p>Jarduera</p> <p>Deskripabean orokorra eta izenburua</p>	<p>Lehenengo, desordenaturik dauden esaldiak irakurri beharko dituzte eta ondoren bideoa osorik ikusiko dugu. Bideoa ikusi ondoren ulertutakoa azaltzeko eskatuko diegu, honela haien ulermen maila ezagutuko dugu. Ondoren, bideoa esaldika mozten joango gara eta behar baldin badute zati hori bi aldiz errepikatuko dugu. Hau egiten dugun bitartean, ikasleak esaldiak antolatzen joango dira eta amaitutakoan denon artean zuzenduko dugu.</p> <p>Zuzendutakoan hurrengo pausoa emango dugu eta aditzetan jarriko dugu arreta. Jarraibide testu batean agertu beharreko aditzen egitura azalduko diegu, kasu honetan agintera.</p> <p>Horretarako taulatxo bat sortuko dugu. (6. Eranskina)</p> <p>Ulertu ondoren, testua antolatzaile eta dagokion aditzarekin berridatzi beharko dute. Irakasleak hori jasoko du zuzentzeko.</p>
--	--



7. <b>Jarduera:</b>	Janariarekin loturiko ohiturak eta abestiak	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>		Euskalki desberdinen ezaugarriak identifikatu eta ulertu ditu
Prozesuaren metodologiaren azalpena	Jardueran erabiliko ditugun materialak/iturriak	Eranskinetako orria: 5. Eranskina Nafarroako Artxiboko bideoa: Arbela digitala Ordenagailuak
	Ikasleak zer egingo du/zertarako	Bi bideo arretaz entzun eta parte hartu beharko du, batez ere, azkenekoan, non abesteko eskatuko zaien.
	Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.	Bideoak jarri beharko ditu eta behar den momentuetan gelditu edota mantsoagotu beharko ditu ikasleen beharretara egokitzeko, gelan entzumenaren ulermen maila desberdinak egongo direlako.
<b>HELBURUAK</b>		Euskalki desberdinen ezaugarriak identifikatu eta ulertu
Jarduera Deskripabean orokorra eta izenburua		Bi testigantza entzun eta bertan dauden galderak erantzun beharko dituzte. Azkeneko bideoarekin abestu egin beharko dute.

<b>8. Jarduera:</b>	Etxean egina a. Familiako errezeta: idatzi, prestatu eta grabatu	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	Jarraibide testu bat ekoizteko beharrezkoak diren elementu eta ezaugarriak barneratu ditu.	
Prozesuaren metodologiaren azalpena	Jardueran erabiliko ditugun materialak/ iturriak	Arbela digitala Ordenagailu eramangarriak
	Ikasleak zer egingo du/zertarako	Ikasleak bere pintxoaren inguruko informazio orria bete beharko du, honetarako etxean honen zirriborroa prestatua behar du izan, aitona-amonen errezeta eta elikadura orekatuaren inguruko informazioa bateratzen dela ziurtatu behar baitu.
	Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.	Ikasleek pintxoaren informazio orria betetzean izan ditzaketen zalantzak argitu beharko ditu
<b>HELBURUAK</b>	Jarraibide testu bat ekoizteko beharrezkoak diren elementu eta ezaugarriak barneratu.	
Jarduera Deskripabean orokorra eta izenburua	Ordenagailu eramangarriak banatu eta bakoitzak bere pintxoaren informazio orria bete beharko du.	

9. <b>Jarduera:</b>	Gurutzegramak	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Euskalki desberdinen ezaugarriak identifikatu eta ulertu ditu             <ul style="list-style-type: none"> <li>1.1. Entzumen ulermena landu du</li> </ul> </li> </ul>
Prozesuaren metodologiaren azalpena	Jardueran erabiliko ditugun materialak/ iturriak	<p>9 Ordenagailu eramangarri</p> <p>Arbela digitala</p> <p>Eranskinetako orria: 3. Eranskina</p> <p>Artxiboko bideoak (eranskinean zehaztua)</p>
	Ikasleak zer egingo du/zertarako	<p>Lehendabizi, irakaslearen jokuaren azalpenari adi egon beharko dira. Bigarren, irakasleak banatutako taldeetan jarriko dira eta dagokien ordenagailura joango dira. 3taldekideen artean rolak banatu beharko dituzte: idazkaria, ordezkaria eta orduaren arduraduna. Behin joko hasi dela, gurutzegramako definizioak arretaz irakurri beharko dituzte eta bideoa arreta handiz entzun beharko dute. 5minuturo ordenagailuz aldatuko dira eta behin ordenagailu guztietan egon ondoren gelara joango dira. Gelan euren erantzunak partekatuko dituzte talde handian. Azkenik, irakasleak arbela digitalean ipinitako bideoetan esaten denari adi egon beharko dira, amaitzean laburpena egin beharko baitute eta hitz egokia jarri beharko baitute. Gainera, beste talde baten erantzunak zuzenduko dituzte. Beraz, adi eta parte hartzaile egon beharko dira jarduera guztian zehar.</p>
	Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.	<p>Hasieran, ordenagailu eramangarri bakoitzean artxiboko bideo bat jarriko du, hortaz, ordenagailu bakoitzean lekuko baten testigantza egongo da entzungai. Ondoren, ordenagailuak ikastetxeko txoko desberdinetan jarriko ditu, beti ere WIFI sarearen barruan bideoak ondo ikus ditzaten. Jarraian, irakasleak</p>

		<p>hiruko taldetan banatuko ditu, talde bakoitzari ordenagailu bana esleituko dio eta, bakoitza bere lekura joan aurretik, jokoaren arauak azalduko dizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde bakoitzak bere gurutzegrama osatu beharko du.</li> <li>- 5minuturo ordenagailuz aldatuko dira.</li> <li>- Taldeka joan behar dira beti.</li> <li>- Pasabideetatik oihukarik ezingo dute egin.</li> <li>- Erantzuna guztien artean adostu behar da.</li> <li>- Azkeneko hitzaren ostean gelara itzuli beharko dira, ordenagailuekin.</li> </ul> <p>Ordenagailuekin eskolan zehar dauden bitartean, irakaslea taldez talde arituko da sortu daitezkeen zalantzak argitzeko eta isiltasuna mantentzeko.</p> <p>Behin denak gelan daudela, lortutako erantzunak aipatuko dituzte taldeek. Honela, ikasleen entzumen ulermen maila ikusiko da eta bideoa berriro jartzerakoan hori izango dugu kontuan. Bideoan esaten dena aztertuko dugu denon artean, eta ondoren erantzunak zuzenak ala okerrak diren egiaztatuko dugu, horretarako taldeek euren artean orriak elkartrukatu dituzte.</p>
<b>HELBURUAK</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Euskalki desberdinen ezaugarriak identifikatu eta ulertu</li> <li>▪ Entzumen ulermena landu</li> </ul>
Jarduera	Deskripabean orokorra eta izenburua	<p>Hiruko taldetan bakoitzak ordenagailu eramangarri bat duela eta txoko isil bat bilatua duela, PADLETea publikaturiko bideoak ikusi beharko dituzte gurutzegrama osatzeko.</p> <p>5minutu izango dituzte bideo bakoitza ikusteko. Ondoren denon artean bideoak ikusi eta gurutzegrama zuzenduko dugu</p>



<b>10. Jarduera:</b>	Pintxo festa!	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	<b>AHOZKOA:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Agurtzen du eta gaia aurkezten du.</li> <li>▪ Bolumen, erritmo eta doinu zuzenak erabiltzen ditu.</li> <li>▪ Ikuste-kontaktua mantentzen du, gorputz adierazpen egokia erabiliz.</li> </ul>	
Prozesuaren metodologiaren azalpena	Jardueran erabiliko ditugun materialak/iturriak	Plastikozko platerak, edalontziak, sardexkak eta goilarak. Aiztoak eta guraizeak Mahai gainetan jartzeko maindire zuria
	Ikasleak zer egingo du/zertarako	<p>Gure aiton-amonek jaten zituzten elikagaietan oinarritutako pintxoaren prestaketa etxean grabatu eta pintxoak ekarri pintxo-festarako.</p> <p>Lehendabizi, mahaiak antolatu beharko dituzte denek lekua izateko moduan eta inor ez baztertua gera dadin kontuan izanik. Mahaiak eta beharrezko tresneria guztia prestatu beharko dute, baita lagunei horretan laguntzeko prest egon ere.</p> <p>Behin dena prest dagoela, bakoitzak bere pintxoaren aurkezpena egin beharko die ikaskideei, zein osagai dituen eta zergatik aukeratu duen azaltzeko. Aurkezpenekin amaitu ondoren, mahai inguruan joango dira pintxo guztietatik dastatzen.</p> <p>Dastaketarekin amaitutakoan ikasgela txukundu eta kideen pintxoaren prestaketen bideoak ikusiko dituzte. Bakoitzak bere bideoa aztertu beharko du eta hobekuntzak idatzi beharko ditu paper batean.</p>
	Irakasleak zer egingo du/zer proposatzen dio ikasleari.	<p>Ikasleei Pintxo-festarako gela prestatu beharko dutela esan eta antolatzen lagundu.</p> <p>Antolatua dagoenean, bakoitzaren pintxoaren aurkezpena grabatuko du eta denek aurkezpena bukatutakoan jaten hasteko baimena emango du.</p>

		<p>Behin denek jaten amaitutakoan, jasotzeko eskatuko die ikasleei eta bitartean arbela digitala prestatuko du ondoren ikasleen pintxoaren prestaketan bideoak jartzeko.</p> <p>Bideoak ikusten hasi aurretik, ikasleei eskatuko die bakoitzak bere burua aztertzeko bideoan eta hobekuntzak paper batean idazteko.</p> <p>Azkenik, bideoekin amaitutakoan hobekuntzak idatzi dituzten paperak jasoko ditu.</p>
<b>HELBURUAK</b>		<p>AHOZKOA:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Agurtzen du eta gaia aurkezten du.</li> <li>▪ Bolumen, erritmo eta doinu zuzenak erabiltzen ditu.</li> <li>▪ Ikuste-kontaktua mantentzen du, gorputz adierazpen egokia erabiliz.</li> </ul>
Jarduera Deskribapen orokorra eta izenburua		<p>Pintxo festarako pintxoak ekarri eta dastaketa egingo dute. Ondoren, pintxoaren prestaketan bideoak ikusiko dituzte eta bakoitzak bere burua aztertuko du.</p>

#### 4.8. Kronograma

Kontuan izanik euskara eta ingurunea batzen dituen proiektua dela, astean 1,5h-ko 4 saio eskainiko zaizkio. Oro har proiektuak 4 asteko luzera izango du eta honela banatuko dira:

##### 1. TAULA: KRONOGRAMA

Astlehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Asteburuko lana
Proiektuaren azalpena	Ondare kultural materiagabearen garrantzia	Digestioa: Testua irakurri eta ideia nagusiak azpimarratu	Digestioa: murala	Gure dieta aztertu: Elikagai moten testuak irakurri eta azpimarratu
Irakaslearen proiektuaren eredia erakutsi				

---

<b>Astelehena</b>	<b>Astearte</b>	<b>Asteazkena</b>	<b>Osteguna</b>	<b>Asteburuko lana</b>
Elikagai motak: murala egin eta Eskolako menua aztertu	Digestioaren eta elikagai moten inguruko quizziz	Gure aiton amonen dieta aztertu  Pintxoaren diseinua eta antolaketa		Pintxoaren errezeta idatzi

---

<b>Astelehena</b>	<b>Astearte</b>	<b>Asteazkena</b>	<b>Osteguna</b>	<b>Asteburuko lana</b>
Jarraibide testua	Aiton-amonen errezeta zuzendu	Aiton-amonen errezeta zuzendu	Errezeta Drivera pasa	Errezeta grabatu

---

<b>Astelehena</b>	<b>Astearte</b>	<b>Asteazkena</b>	<b>Osteguna</b>	<b>Asteburuko lana</b>
Janariarekin loturiko ohiturak eta kankak	Gurutzegrama		Pintxo festa	

---



#### **4.9. Ebaluazioa**

Proiektuan zehar komunikazioan parte hartzen duten hainbat esparru landu ditugunez, horiek ebaluatzeko errubrika batzuk sortu ditugu, bai ahozko bai idatzizko adierazmena ulertzeko, horiek baitira testuinguru orokorrean gehien lantzen diren ikasgaiak. Jarraian errubrika horietako irizpideak ezarri ditut.

##### 4.9.1. Hiztegia ebaluatzeko froga (%20)

Hiztegia Google forms aplikazioa erabiliz egingo zaie:

##### 4.9.2. Ahozkotasuna ebaluatzeko errubrika (%40)

## 2. TAULA

	4. maila	3. maila	2. maila	1maila
<b>Sarrera.</b> <b>Aurkezpena</b>	Agurtzen du eta gaia aurkezten du	Ez du agurtzen baina gaia aurkezten du.	Agurtzen du baina gaia ez du aurkezten	Ez du agurtzen ezta aurkezpena egiten ere.
<b>Ahoscuntza,</b> <b>argitasuna eta</b> <b>hitz-jarioa</b>	Erreztasun eta argitasunez ahoskatzen ditu ideiak.	Erreztasun eta argitasuna adierazten du baina etenaldi eta blokeo batzuekin.	Ez du erreztasun eta argitasunez ahoskatzen eta momentuero blokeoak eta etenaldiak egiten ditu	Ez da gai erreztasun eta argitasunez ahoskatzeko.
<b>Bolumena</b> <b>doinua</b> <b>eta</b> <b>abiadura</b>	Bolumen eta doinu zuzenak. Abiadurak ulermena errazten du.	Bolumena edo doinua ez dira egokiak. Abiadurak ulermena ahalbidetzen du	Bolumena eta doinua dira egokiak baina abiadurak ulermena zailtzen du.	Bolumenta eta doinua ez dira egokiak. Abiadurak ulermena eragozten du.
<b>Jarrera</b> <b>gorputz</b> <b>adiarezpena</b>	Taldeari zuzentzen dio postura. Ikuste-kontaktua mantentzen du. Urduritasun	Taldeari zuzentzen dio postura. Ikuste-kontaktua sarritan mantentzen du.	Taldeari postura ez dio zuzentzen. Nohizeanbehi n ikuste-kontaktua du. Urduritasun nabarmena.	Taldeari postura ez dio zuzentzen. Ez du ikuste-kontaktua mantentzen. Urduritasun nabarmena.

	eza.	Urduritasun gutxi.		
<b>Edukien egokitzapena</b>	Aurkezten duen informazio guztia gaiarekin argiki harremandua dago.	Gaiarekin harremantzen den informazio ugari aurkezten du.	Gaiarekin argiki harremandua ez dagoen informazioa aurkezten du.	Aurkezten duen informazioa ez dago batere harremandua gaiarekin.

## 4.9.3. Errezetaren autoebaluaketa (%40)

**3. TAULA**

	<b>NAHIKOA (5)</b>	<b>ONGI (6)</b>	<b>OSO ONGI ( 8)</b>	<b>BIKAIN (10)</b>
<b>ADITZA</b>	INFINITIBOA	ADITZ LAGUNTZAILEA	AGINTERA (NOR-NORK)	AGINTERA (NOR-NORI-NORK)
<b>GAIAREN HIZTEGIA</b>	3 ERDERAKADA	2 ERDERAKADA	0 ERDERAKADA	0 ERDERAKADA HIZTEGI ABERATSA
<b>DENBORA ANTOLATZAI LEAK</b>	HIZTEGI POBREA 2 errepikapen eta era 2 desegOKMan erabili ditut	HIZTEGI EGOKMA 2 errepikapen eta 1 era desegOKMan jarri ditut	HIZTEGI EGOKMA 2 errepikapen erabili ditut	Desberdinak eta era egOKMan erabili ditut

**PUNTUAK**

ADITZA

HIZTEGIA

ANTOLATZAILE

BATAZBESTEKOA

---

Guztira

## ONDORIOAK

### Datuen azterketa

Proiektu honen helburu nagusia lortzen zen egiaztatzeko hiru froga pasa nizkien bai nire ikasleei (A gela) bai beste bi gelakoei, haiek urteroko proiektua jarraitu baitzuten. Ikasle kopuruari dagokionez, A gelako ikasleak 27 ziren bitartean, beste bi geletan 26 ikasle ziren. Hiru froga horiek honakoak ziren:

1. Hiztegi froga, non ikasleek euskalkietako hitzak erabiliz 10 esaldi osatu behar zituzten.
2. Ondare kultural materiagabearen ezagutza ebaluatzeko honen inguruko 6 galdera erantzun behar zituzten.
3. Proiektuaren inguruko 14 galderako froga.

Froga hauek ikasleei pasa aurretiko hipotesia honakoa zen: A gelakoek gainerako gelek baino hobekiago eta konfidentzia handiagoz erantzungo zutela. Frogetan emandako erantzunak aztertu eta frogan bertan behatutako jarreraren ostean, hipotesia baieztatu da. Izan ere, B eta C gelakoek zailtasunak zituzten frogak egiteko hiztegia ulertzen ez zutelako, baina A gelakoek arazorik gabe ulertu zituzten frogetan agertzen ziren hitzak. Goazen emaitzak frogaz frogaz aztertzeraz.

Lehenengo frogan A gelakoen erdiak baino gehiagok 9-10/10puntutik eskuratu zuen eta soilik 2 pertsonak ez zuten gainditu. B mediana 4/10 puntukoa zen, 6 pertsonak soilik gainditu zuten eta horietatik bi ikasleak soilik lortu dute 6/10 asmatzea. C gelako emaitzak honakoak izan ziren: mediana 4/10 puntutan mantendu bazen ere, bi ikasleak 8/10 asmatzea lortu zuten. Beraz, emaitzei begiratzen badiegu, argi dago A gelakoek euskalkietako hiztegia ikasi zutela eta aplikatzen bazekitela.

Bigarren frogako emaitzak alderatzen dituen taula honakoa da:

4. TAULA.

Itemak	A	B	C
Erantzun zuzenak	%80	%30	%36
Belaunaldien arteko transmisioa garrantzitsutzat	%94	%26	%38
Transmisio ezak identitate finkapen arazoa dakarrela jabetzea	%64	%22	%75

Goiko taula aztertuz gero, azalekoa da A gelak ondare kultural materiagabearen ezaugarriak identifikatzen eta belaunaldien arteko transmisioaren garrantzia baloratzen, B eta C geletan baino askoz ere hobeto dabilela. Hala ere, gailentze hau ez da hain argia azkeneko itemean, izan ere, C gela A gelak baino %11 gehiago eskuratu du, nahiz eta bi hauen portzentaia B gelakoa baino askoz ere altuagoa izan den. Hortaz, OKMren inguruko froga honetan ere oro har A gelak gainerako biek baino emaitza altuagoak lortu ditu.

Hirugarren froga proiektuaren ingurukoa zen eta autoebaluazio modua zela esan daiteke, proiektuarekin eskuratutako ezagutzen inguruan hausnartu behar baitzuten. Itemak ebaluatzeko egindako galdetegia “9.Eranskina” atalean dago eta lortutako emaitzak hemen beheko taulan agertzen dira:

5. TAULA.

Itemak	A	B	C
Gustatu zaio proiektua	%100	%88	%89,3
Nork lagundu zaitu proiektua egiten?			
Gurasoek	%96	%73	%85,7

Aiton-amonek	%83	%3,8	0
Izeba osabek	%4	0	0
Anai-arrebek	%17	%31	%17,9
Beste batek	%8	%15	%10,7
<b>Proiektua hasi aurretik zenbatek zekiten aiton-amonek jaten zutena</b>	%8,3	%11,5	%7,1
<b>Proiektuaren ondoren zenbatek zekiten aiton-amonek jaten zutena</b>	%100	%0	%14,3
<b>Ezagutzen ez zuten familiako errezeta ezagutu dutenak proiektuaren bidez</b>	%80	%84	%32,1
<b>Senideekin harremana hobetu</b>	%75	%77	%46,4
<b>Euskalkiak ulertzeko gaitasuna garatu</b>	%83	%3,8	%25
<b>Hiztegi berria ikasi</b>	%92	%57,7	%71,4
<b>Lekukoetatik hiztegia ikastea gustatu</b>	%92	%46,2	%68
<b>Ikaskideen familien inguruan zerbait ikasi</b>	%75	%11,5	%32,1
<b>Nafarroako euskalkiak ezagutzen eta ulertzen lagundu die proiektuak</b>	%75	%24	%25

Taula aztertuko dugu orain: A gelako guztiei gustokoa izan dute proiektua, baina beste bi geletako zenbait ikasleri ez zaie horrenbeste gustatu.

Familiaren inplikazioa behatuz gero, hiru geletan gurasoak asko parte hartu dute, batez ere A gelan. Aiton-amonei dagokienez A gelan %83ak parte hartu duen bitartean, beste bi geletan ez

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

dute parte hartzeik edota ikasleren batenak soilik jardun du lanean. –anai-arreben partaidetza handiagoa izan da B gelan eta A eta C geletan kopuru horren erdiak jardun du.

Aiton-amonek jaten zutenaren inguruko aurrejakintzak eskasak dira hiru geletan hasieran, baina behin proiektua amaitutakoan A gelako % 100ak horren inguruko ezagutzak eskuratu dituztela aitortzen duten bitartean, B eta C gelako portzentaiak hasierako antzekoak mantentzen dira.

Ezagutzen ez zuten familiako errezetaren bat aurkitu dutenak %80 inguruan dago bai A eta B geletan, nahiz eta C gelan %32 ak inguru soilik topatu duen horrelakoren bat.

Senideekin harremana A eta B geletan %76 inguruan hobetu den bitartean, C gelan aurreko kasuan bezala portzentaia baxuagoa da, %46.

Euskalkiak ulertzeko gaitasuna A gelan soilik aldarrikatu da % 83ko portzentaiarekin eta beste bietan bakan batzuk soilik onartu dute garapen hori.

Hiztegi berria hiru geletan ikasi bada ere, A gelako portzentaia da altuena %92arekin eta portzentaia berdina mantentzen da lekukoetatik hiztegi hori ikastea gustatu zaien ikasle kopuruari.

Ikaskideen familien inguruko ezagutza zabalpena nabarmenki A gelan soilik eman da, ehuneko 75 kasutan. Ondoren C gelakoek lortu dute portzentaiarik altuen %32 arekin eta B gelan %11 soilik lortu da.

Azkenik, Nafarroako euskalkien ezagupena eta ulermena A gelako % 75 ak lortu duten bitartean, B eta C geletan ikasleen %24-25 ak soilik garatu du gaitasun hori.

### **Datuen interpretazioa**

Datuak aztertu ondoren zenbait ondoriotara iritsi naz. Lehenik eta behin, hiztegiaren frogak erakusten du A gelakoek euskalkietako hiztegia nabarmenki zabaltzea lortu dutela proiektu honetan garatutako ariketen bidez. Gainera, hiztegi hau lekuekoengandik ikastea askoz ere

atseginagoa izan dela diote A gelakoen %92ak. Hori izan liteke hiztegia testuinguru batean eta norbaiten hitz-jarriotik eskuratu dituztelako.

Bigarrenik, proiektu honen helburu garrantzitsua zen ondare kultural materiagabearen lortzeaz gain, honek dakartzan onurak identifikatzea lortu dute. Honela bada, belaunaldien arteko ahok ahoko transmisioarekiko engaiamendua eta honen inguruan hausnartzeko trebezia garatu dute. Gainera, proiektu honen bidez ondare hori ez galtzeko tresnak eman dizkiegu eta badakite orain beraien esku dagoena egin beharko dutela haien familiako OKM gaurkotu eta beren ondorengoei transmititzeko.

Honen harira, ikaragarria da OKM ikasgelako unitate batean sartzean ikasleen motibazioan eta horien senideetan duen eragina. Izan ere, honetan jardun duten ikasleen %100 ak laket izan du proiektua eta guraso eta aiton-amonen inplikazioa %90 ingurukoa izatera heldu da. Hemen argi ikusten da nola familia beti dagoen prest haurrak laguntzeko eta prozesu oso naturala bultzatzea besterik ez dela, betidanik gizakiek euren arbasoengandik eskuratu baitituzte bizitzarako ezagutzak eta trebeziak.

Datu honekin batera senideekin harremana hobetu dutela argikusten da, eta hori ezinbestekoa da hala ikasleak giro atsegin batean hezteko nola beren identitateak finkatzeko. Marko teorikoan ikusi dugun bezala, gu nor garen besteekin elkarreaginean ikasten dugu, haiekin ditugun desberdintasun eta berdintasunak aztertuz. Gure erreferentziako taldea familia da eta honen beharra sekulakoa da sakabanaketa hori egin ahal izateko.

## **HAUSNARKETA**

Nahiz eta ondare kultural materiagabearen unitate didaktiko baten barnean sartzeak irakasleengan lan eskerga dakarren, unitatea izugarri aberasten da eta argi ikusi denez ikasleek denbora berean edukiekin zuzenki erlazionatuak dauden ezagutza eta gaitasunak eskuratzeaz gain, ondareari esker beste modura jorratuko ez liratekeen beste alor batzuk ere garatu dituzte. Batetik, identitatearen ezarpenean lagundu die, euren senideekin haien iraganaz hitz egiterakoan haien sustraiak ezugutu dituzte eta hortik hasi behar da identitatea lantzen nondik

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat



gatorren jakitetik. Gainera, topaturiko datuak amankomunean jartzerakoan besteekin dituzten berdintasun eta ezberdintasunetaz jabetuko dira. Honela hasiko dira lan honetan IDENTITATEA atalaeen aipaturiko bi taldeak bereizten laguntzen, hots, “NI” eta “BESTEAK”, ikasleen gizarteratzean funtsezkoa dena (Bruner, J.S.,2009) .

Bestetik, gradu honetan zehar ikasi dugun bezala Konstruktibismoaren arabera, adimena antolakuntza bat da, bertan esperientziak egituratu eta eskemak antolatzen direlarik. Ikasketa bakoitza aurrez ikasitakoetan oinarritzen da. Zenbait esperientzia ezin dira moldatu eta beraz errefusatu egiten dira. Aurreko eskemei elementu berriak eransterakoan eskemok aldatu , berregituratu eta konplexuago bihurtzen dira. Inguruarekin dituen harremanak egokiak badira, garapen intelektuala gertatzen da, eta hizkuntza agertzen da. Gizakiok hizkuntza txikiak garenetik barneratzen dugu imitazio bidez, baina eskolara sartzerakoan askotan liburuen bidez eta ariketak egiten irakasten zaie. Hortaz, ikerketa lan honekin frogatuta gelditzen da lekukoek hitzetatik ere hizkuntza jorratu daitekeela eta, euskaren kasu zehatzari begira, askoz ere aberasgarriagoa da toki desberdinetako hiztunak egunerokotasunean entzutea, hizkuntza bizia baita eta liburu batek ez baitigu pertsona batek transmititu diezagukeena igortzen. Gainera, egun ditugun aurrerakuntza teknologikoei esker testigantzak bideoan grabatu ditzakegu eta ondoren grabaketa horiek sare sozialen bidez zabaldu. Modu honetara, ikasleek gustokoek duten euskara aukera dezakete eta hori imitatu, besteak beste.

Aurretik aipaturikoaz gain, ondare kultural materiagabea lantzeak ikasleek haien aitona-amonekin harremanetan jartzea ahalbidetzen du eta honek ikasten dutena alde emozionalarekin erlazionatzea ahalbidetzen du. Oso garrantzitsua da alde emozionalarekin konektatzea, honela sortuko baita Ausubelek (2012) gorai patzen duen ikaskuntza esanguratsua, non ezagutza berriek aurrekoekin bat egiten duten gure eskema mentalean. Ez badugu harreman hori lortzen ez dira irmoki finkatuko eta, denboraren poderioz, ahaztu egingo dira.

Modu berean ez dugu ahaztu behar Brunerrek “perfink” hitzarekin egiten digun gomendioa. “Perfink” ingelesezko antzeman, sentitu eta pentsatu hitzen artean sorturiko hitz bakarra da. Horrekin aditzera eman nahi duena zera da, kulturak hiru kontzeptu horiek erlazionatuak eta

elkarrekin mantentzen dituela eta horrek gure esperientziari koherentzia ematen diola. Halere, azken urteotako hezkuntza legeek ez dituzte hiru alderdiak batera eta elkarreraginean lantzeari garrantzirik aitortu, nahiago baitute, Ken Robinsonek argitaraturiko hainbat aldizkari eta aurkezpenetan argi uzten duen bezala, ikasle langile berdinak sortu bata bestearen atzetik eta sistema horretarako balio ez dutenak kanpoan utzi. Baina elburu horrek lortu duen gauza bakarra norabiderik ez duten pertsonak garatzea izan da eta horiek gure gizartearen agenteak dira, gure ikasleen eredu. Honekin bukatzeko bide bakarra hezkuntzan adimen emozionala berriro ere lantzea da eta hori da proiektu honen bidez erdietsi nahi dena, ikasle kritikoak eta giartean aktiboki parte hartzeko prest daudenak.

Ez dezagun ahaztu Benjamin Franklinek zioena: esaidazu eta ahaztuko dut, irakats ieazaidazu eta gogoratuko dut, partaide egin nazazu eta barneratuko dut. Gidalerro berdinetik Confuciok zioen: kontatu zidaten eta ahaztu nuen; ikusi eta ulertu nuen; egin eta ikasi nuen.

Hitz gutxi horietan nire lanaren helburua labur nezake, izan ere, ez dut Nafarroako Artxihoan zeuden testigantzak soilik erabili baizik eta ikasleak kazetari-historialari bihurtu eta haien senideekin batera ikasgelako ondare kultural materiagabearen bilduma osatu dugu, non bakoitzak berak atxikitutakoa ikus dezakeen. Honekin aditzera eman nahi dudana da ikasgelan lortutako informazio bilduman bere buruaren eta familiaren parte txiki bat dagoela sentituko duela ikasle bakoitzak eta ikasgela munduaren isla dela kontuan izanik, etorkizunean giartean ere bere lekua izango duela eta bertako partaide izango dela konturatuko da.

Jankina da zerbait gurea dela badakigunean hobeto zaintzen dugula, ez baitugu hori desagertzerik nahi, azken finean gure zati bat bezala kontsideratzen dugulako. Sentimendu hori ere bada maite dugun zerbait apurtzen denean konpondu nahi izatea eta hori lortzeko ahaleginak egitea. Baina gaur egungo gizartean gailentzen den globalizazio eta kontsumismo ohiturek, guztia baztergarria dela pentsatzera garamatzate ardiak bezala.

Halako mugimenduak ekiditzea da etorkizuneko(eta egungo) eskolaren ardura, horregatik garatu behar ditugu pertsonalagoak diren proiektuak eta ondareak horretarako bidea dela ziur nago, proiektu honekin lorturiko emaitzei so egin ondoren. Ikaragarria izan zen ikasleek

izandako partaidetza proiektu guztian zehar eta biziki poztu ziren haien aiton-amonekin harremanetan jartzeko eta haiekin hitz egindakoa gelan partekatzeko garaian.

Honetaz gain, proiektu honek hausnartzeko milaka bide luzatu dizkie belaunaldi batetik bestera testuingurua asko aldatu dela ohartu baitira eta horrek munduarekiko kritikotasuna garatzen lagundu die. Honela, ikasleek egun ditugun baliabideak positiboki balioetsi dute gure arbasoen borrokari esker lortu baitugu. Esaterako, asko harriturik itzuli ziren gelara aiton-amonekin mintzatu ostean, ez baitzuten espero haien senideek janari eskasia jasan izan zutenik.

Beraz, hitz gutxitan esan daitekeena da, ondare kultural materiagabea unitate didaktikoan sartzerakoan ikaskuntza esanguratsu baterako ardatz diren hiru kontzeptuak, hots, antzematea, sentitzea eta pentsatu, bateratu egiten direla, modu honetara, ikasleen esperientziak koherentziaz josiz eta identitate, gizarteratze prozesu eta kritikotasuna bermatuz.



## ERREFERENTZIAK

- Arregi, X. (2009(e)ko uztaila). Zertaz ari gara proiektuen bidezko metodologia aipatzen dugunean? Zein dira metodologia horren ezaugarriak? Eta abantailak. Galdegidazue saila. Mondragon Unibertsitatea (140. alea). [Eskuragarri (25/04/2017): helbide honetan: <http://www.hikhasi.eus/artikulua/1761>]
- Ausubel, D.P. (2012/12/06) The Acquisition and Retention of Knowledge: A Cognitive View. Springer Science & Business Media. [Eskuragarri (25/04/2017): [https://books.google.es/books?id=wfckBAAAQBAJ&dq=ausubel+meaningful+learning+theory&source=gbs\\_navlinks\\_s](https://books.google.es/books?id=wfckBAAAQBAJ&dq=ausubel+meaningful+learning+theory&source=gbs_navlinks_s) ]
- Aznarez, M. eta Asiáin, A. (2012). Patrimonio cultural inmaterial y adquisición / desarrollo del lenguaje: tradición discursiva y psicodinámica oral. HUARTE DE SANJUAN. Filología y didáctica de la lengua. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. (45-64 orr).
- Aznarez, M. eta Asiáin, A. (2013). Aplicaciones didácticas del patrimonio cultural inmaterial para la enseñanza de la competencia comunicativa. SEDLL. Lenguaje y Textos. Núm.38 (159-167 orr)
- Benejam, P. (n.d.). las aportaciones de teoría sociocultural y constructivista a la enseñanza de las Ciencias Sociales. (53-66)
- Bruner, J.S. (2009/06/30) Actual Minds, Possible Worlds. Harvard University Press. [Eskuragarri (25/04/2017): <https://books.google.es/books?id=YNuBf6W2rt0C&pg=PA69&lpg=PA69&dq=bruner+perfink&source=bl&ots=365CVIKuBJ&sig=kNRT0DLoyqD8Co1UwdrqPSSVIXE&hl=eu&sa=X&ved=0ahUKEwi5xNbjtu3TAhXF2RoKHeo-D6wQ6AEITAA#v=onepage&q=bruner%20perfink&f=false> ]
- Canals, R. eta Pagés, J. (2011). El conocimiento social y su contribución a la enseñanza y el aprendizaje de las competencias básicas Aula de Innovación Educativa. Núm. 198.. (35-40 orr)
- Canals, R.(2009). La evaluación de la competencia social y ciudadana. . Aula de Innovación Educativa. Núm. 187. Universidad Autónoma de Barcelona.

- Castells, M. (1999). LA ERA DE LA INFORMACIÓN: Economía, sociedad y cultura. Volumen II: El poder de la identidad. Siglo veintiuno editores. (Carmen Martínez Gimeno itzulia)
- Currículo de las enseñanzas de Educación Primaria en la Comunidad Foral de Navarra. (2014). 1st ed. [ebook] Boletín Oficial de Navarra, pp.155-156. [Eskuragarri (2017/04/29): [https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/B62A9CFB-C17B-461E-BD7D-BBEE005C2096/0/F1410295\\_EducacionPrimaria.pdf](https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/B62A9CFB-C17B-461E-BD7D-BBEE005C2096/0/F1410295_EducacionPrimaria.pdf) ]
- EduTopia. (2017). Project-Based Learning. [online] [Eskuragarri (2017/04/29): <https://www.edutopia.org/project-based-learning> ]
- Garzo, N. (2017). [Blog] Kazetarien gunea. [Eskuragarri (2017/04/29): [https://padlet.com/nagore\\_garzo/jdui951bejf](https://padlet.com/nagore_garzo/jdui951bejf) ].
- González Monfort, N. (2008). El valor educativo y el uso didáctico del patrimonio cultural. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona.
- González Monfort, N. eta Santisteban A. (2011). Cómo enseñar ciencias sociales para favorecer el desarrollo de las competencias básicas. Aula de Innovación Educativa. Núm. 198.
- Gumperz, J.J. (1982). Discourse Strategies Cambridge University Press. [Eskuragarri (2017/04/29): [https://books.google.es/books?id=aUJNgHWI\\_koC&printsec=frontcover&source=gbs\\_ge\\_summary\\_r&cad=0#v=onepage&q&f=false](https://books.google.es/books?id=aUJNgHWI_koC&printsec=frontcover&source=gbs_ge_summary_r&cad=0#v=onepage&q&f=false)]
- Harmer, J. (2012). Essential Teacher Knowledge. Pearson Educated Limited (Harlow). (84-85.orr)
- Hymes, D. (1962). The Ethnography of Speaking. [Eskuragarri (2017/04/29): <http://www.ohio.edu/people/thompsoc/Hymes2.html> (25/04/2017).]
- Irureta Azkune, O. (2012/09/23). Termometroa: Nola irakatsi hizkuntzak erabiltzeko izan daitezten. Argia. [Eskuragarri (2017/04/29): <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2337/maribi-apraiz-marimar-perez-eta-tere-ruiz>]
- Labrit.net (n.d.) Labrit. [Eskuragarri (2017/04/29): <http://labrit.net/es/?tag=ondare-materiagabea-es>]
- Littlewood, W. (1981) Communicative Language Teaching: An Introduction. Cambridge University Press

- Llull Peñalba, J. (2005). Evolución del concepto y de la significación social del patrimonio cultural. Alcalá: Escuela Universitaria "Cardenal Cisneros" Universidad de Alcalá.
- Lopez-mugartza Iriarte, J.K. (2015). Hizkuntzaren didaktikaren oinarritze epistemologikoa. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (publikatugabea)
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.. Unidades didácticas. [Eskuragarri: (2017/04/29) <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2337/maribi-apraiz-marimar-perez-eta-tere-ruiz>].
- Navarchivo. (n.d.). Navarchivo. [Eskuragarri (2017/05/24): <http://www.navarchivo.com/index.php/es/fondos/educacion> ]
- Navarra, U. (2017). Universidad Pública de Navarra - Campus de Excelencia Internacional. [online] Unavarra.es. <http://www.unavarra.es/actualidad/noticias?contentId=225286> ]
- Pazdezigandaikastola.net. (2015). Paz de Ziganda ikastola. [webgunea]. Eskuragarri (2017/05/24): <http://www.pazdezigandaikastola.net/eu/proyecto-educativo/educacion-primaria1/metodologia1> [2017/05/24].
- Peñafiel Pedrosa, E. eta Serrano García, C. (2010). Habilidades Sociales. (202-232 orr.) [online] Eskuragarri (2017/05/24): <https://books.google.es/books?id=zpU4DhVHTJIC&printsec=frontcover#v=onepage&q&f=false>
- Pixabay (2015/09/01) Coliseum. [Irudia] Eskuragarri: Eskuragarri (2017/05/24): Blogspot (n.d.). Ogi egosigabea gurutzearekin. [Irudia]. Eskuragarri (2017/05/24): [http://3.bp.blogspot.com/-cO164TFTYHQ/UIV7zZ8VxQI/AAAAAAAAAB\\_g/kG09d9C5FJ4/s1600/4.jpg](http://3.bp.blogspot.com/-cO164TFTYHQ/UIV7zZ8VxQI/AAAAAAAAAB_g/kG09d9C5FJ4/s1600/4.jpg)
- Rodríguez Lestegás, F. (coord.). (2008). Identidad y ciudadanía: reflexiones sobre la construcción de identidades. Horsori editorial, SL. (Barcelona) (7-29 orr.)
- Santisteban, A. (2009). Cómo trabajar en clase la competencia social y ciudadana. Aula de Innovación Educativa. Núm.187. Universidad Autónoma de Barcelona.
- Serra, J.M. eta Vila Mendiburu, I. (n.d.). Bigarren hizkuntzak eta eskola. (21-68 orr)

Trea. (30 de 04 de 2017). Trea. Obtenido de <http://www.trea.es/books/el-patrimonio-cultural-inmaterial-y-su-didactica>

Txanela.eus. (2017). Proiektua | Txanela. [online] Available at: <http://www.txanela.eus/proiektua> [2017/03/25].

Santacana Mestre, J. eta Prats Cuevas, J. (2014/05/05). El patrimonio inmaterial y la educación: bases conceptuales para un planteamiento didáctico. Barcelona: HER&MUS 15(bol.VI, 11. zbk., 8-15 orr.)  
Eskuragarri (2017/05/24):  
<http://www.ub.edu/histodidactica/images/documentos/pdf/HERMUS.%20article%20introduct ori.pdf>

UNESCO. (2003). Convención para la salvaguardia del Patrimonio Cultural Inmaterial. Paris. Eskuragarri (2017/05/24):

UNESCO. (n.d.). ¿qué es el patrimonio cultural inmaterial?. UNESCO. Eskuragarri (2017/05/24):  
<http://www.unesco.org/culture/ich/es/que-es-el-patrimonio-inmaterial-00003> helbidetik eskuratua

UNESCO. (n.d.). UNESCO. Eskuragarri (2017/05/24): <http://es.unesco.org/about-us/introducing-unesco>

UPNA-NUP. [webgunea] [Eskuragarri (2017/05/24): <http://www.unavarra.es/actualidad/noticias?contentId=225286>]

## ERANSKINAK


### 1. Eranskina: Zer da ondare kultural materiagabea?

ZER DA ONDARE KULTURAL MATERIAGABEA?

1. Hauek zer dira? Non daude? Noiz egin ziren? Zertarako?

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat





#### 4. IRUDIA



#### 5. IRUDIA



#### 6. IRUDIA:

2. Zertarako sortu zen idazketa? Idazketarekin batera zer sortu zen?
3. "Izan zirelako, gara eta garelako izango dira" esaldi honek zer esan nahi du?
4. Nola dakigu gure arbasoez? Ba al dakizu nola deitzen zaion haiek utzi dizkiguten guzti horri?
5. Ondarea eraikuntzak, arropa edota uki daitekeen gauza bakarrak al dira? Adibidez, abestiak ?
6. Ondare kultural materiagabea zera da:
  - a. Tradizionala eta egunekoa

- b. Integratzailea
  - c. Errepresentatzailea
  - d. Komunitate batean oinarritua
7. Nola transmititzen da? Zer gertatuko litzake igorleak ez baleude?
  8. Gure identitatea definitzeko arras garrantzitsua da gure jatorria ezagutzea. Zer eragin izango du globalizazioak?

Orrialde honetako irudien estekak, hurrenez hurren:

- [https://www.google.es/url?sa=i&rct=j&q=&esrc=s&source=images&cd=&cad=rja&uact=8&ved=0ahUKEwiV9-aTp5XUAhVCOhoKHVEwCqYQjRwIBw&url=https%3A%2F%2Fpixabay.com%2Fes%2Fphotos%2Fcoliseum%2F&psig=AFQjCNHdck8G1F6BqKdzIU\\_wFwHqXfZGOW&ust=1496154277013915](https://www.google.es/url?sa=i&rct=j&q=&esrc=s&source=images&cd=&cad=rja&uact=8&ved=0ahUKEwiV9-aTp5XUAhVCOhoKHVEwCqYQjRwIBw&url=https%3A%2F%2Fpixabay.com%2Fes%2Fphotos%2Fcoliseum%2F&psig=AFQjCNHdck8G1F6BqKdzIU_wFwHqXfZGOW&ust=1496154277013915)
- [https://www.google.es/url?sa=i&rct=j&q=&esrc=s&source=images&cd=&cad=rja&uact=8&ved=0ahUKEwirh6T-ppXUAhVG5xoKHb8zDqkQjRwIBw&url=http%3A%2F%2Fwww.taringa.net%2Fposts%2Ffftopic%2F19633815%2FLa-religion-favorece-la-enfermedad-mental.html&psig=AFQjCNG\\_VPIF9WVnR9Gw1XSagdnUkJtZnQ&ust=1496154175300828](https://www.google.es/url?sa=i&rct=j&q=&esrc=s&source=images&cd=&cad=rja&uact=8&ved=0ahUKEwirh6T-ppXUAhVG5xoKHb8zDqkQjRwIBw&url=http%3A%2F%2Fwww.taringa.net%2Fposts%2Ffftopic%2F19633815%2FLa-religion-favorece-la-enfermedad-mental.html&psig=AFQjCNG_VPIF9WVnR9Gw1XSagdnUkJtZnQ&ust=1496154175300828)
- <https://www.google.es/url?sa=i&rct=j&q=&esrc=s&source=images&cd=&cad=rja&uact=8&ved=0ahUKEwjF2P3HppXUAhUG1RoKHT0ZB6gQjRwIBw&url=http%3A%2F%2Fguias-viajar.com%2Fespana%2Fnavarra-castillo-palacio-real-olite-datos-historicos-curiosidades%2F&psig=AFQjCNGCQFclXhEX0FzLirU-ndJ4TuDglg&ust=1496154119853898>

## 2. Eranskina: Aiton-amonen inguruko informazioa jasotzeko fitxa



Goazen denon artean gure aiton-amonen garaia inguruko informazioa lortzea !

Lagugarri izango zaizu beheko taula informazioa antolatzeko:

	Aiton-amonen garaia	Nire garaia
Zer jan...		
...gosaltzeko?		
...bazkaltzeko?		
...afaltzeko?		
...ospakizunetan?		
Nork egiten ditu jakiak?		
Nongoak dira jakiak?		
Non lortu ditzakete jakiak?		
Nola garraiatzen dira jakiak?		

Janari kopuru asko dago?		
Non prestatzen dira jakiak?		
Jaki horiek zein elikagai motakoak dira?		

Parteka ezazu eskuratutako informazioa PADLET<sup>2</sup>ean!

Ikasle batzuek partekatu zutenaren adibidea:




<sup>2</sup> [https://padlet.com/nagore\\_garzo/jdui951bejf](https://padlet.com/nagore_garzo/jdui951bejf)

## 3. Eranskina: Gurutzegrama

## GURUTZEGRAMA

Saia zaitez zure taldearekin batera ondorengo gurutzegrama!

PADLETeko bideoetako  
lekukoek lagunduko zaituztete!



## ESKUINETIK-EZKERRERA

- 2** Neurtzeko kutxa  
**6** Ura eramateko erabiltzen zituzten ontziak  
**7** Lurrez egindako ontziak  
**9** Ura garraiatzeko buruan zeramaten ontziak  
**10** Kumea kendu dioten behia

## GOITIK-BEHERA

- 1** Odolkiaren sinonimoa  
**3** Behazunaren sinonimoa  
**4** Txerri puskei baratxuri salda eta gatza botatzea  
**5** Haur txikiei jateko ematen zitzaizen papila  
**8** Txokolate txuriz egindako bolak

Hauek dira erabilitako Nafarroako ondare materiagabearen artxiboko web-gunetik (www1.navarchivo.com) harturiko bideoak:

- Elizagarai Arrese, Bernardina (Aria) Txerri hiltzea:  
<http://www1.navarchivo.com/es/node/31107>
- Iribarren Iriarte, Concha (Lekunberri)Txikitako anekdota:  
<http://www1.navarchivo.com/es/node/32112>
- Organbide, Ixabel (Urdax) Zerri hiltzea: <http://www1.navarchivo.com/es/node/32128>
- Astibia Apezetxea, Joxepi (Leitza) Txerri puskak:  
<http://www1.navarchivo.com/es/node/32108>
- Irazoki Etxenike, Dolores (Zugarramurdi) :  
<http://www1.navarchivo.com/es/node/31891>
- Elizagarai Arrese, Bernardina (Aria)Ura ekarri:  
<http://www1.navarchivo.com/es/node/31108>
- Irazoki Etxenike, Dolores (Zugarramurdi) Zerria hiltzean janaria urinetan:  
<http://www1.navarchivo.com/es/node/32129>
- Conde Iriarte, Leoncia. (Abaurrea Alta) Gosaria:  
<http://www1.navarchivo.com/es/node/31130>
- Irazoki Etxenike, Dolores Txokolatea : <http://www1.navarchivo.com/es/node/32114>

I.A.A.I.O

## GURUTZEGRAMA

Saia zaitetz zure taldearekin batera ondorengo gurutzegramak!

! Bideok lagunduko dizuete! Adi egon!

1	T			2	A	L	3	M	O	T	E		
	R		4	G				I					
	I	A						N				5	A
6	P	O	E	A	L	A	K					H	
	O		:									:	
	T	T			7	K	8	K	E	L	A	K	
	A		E			L							
			9	F	E	R	R	A	T	A	K		
				A			D						
							O						
10	B	E	H	:	Z	A	G	:	A				

ESKUINTIK-EZKERRERA

- Neurtzeko kubxa
- Ura eramaleko erabiltzen zituzten ontziak
- Lurrez egindako ontziak
- Ura garraiatzeko buruan zeramaten ontziak
- Kumea kendu dioten behia

GOITIK-BEHERA

- Odolkaren sinonimoa
- Behazunaren sinonimoa
- Txerri puskei baratxun salda eta gatza botatzea
- Haur bokiei jateko ematen zitzairen papila
- Txokolate buruz egindako bolak

#### 4. Eranskina: Jarraibide testua lantzeko ariketak

OGIAREN ERREZETA

- Errezetaren pausoak nahastu dira! Saia zaitetz denak berrantolatzen bideoa <sup>3</sup>ikusiz

4	Ur epela ginetik ISURITZ EZZAZU
16	Armairuan gorde EZZAZU
2	Irina mahai gainean zabalduta EZZAZU
15	Ogia labean bi orduz egin EZZAZU
13	Labe zatarrarekin labea garbituta
5	Gatza bota EZZAZU / Oreari gatza bota IEZZAIOZU
14	Labandaian ogia jarritik EZZAZU
12	Ogia zapi batzuen gainean zabalduta EZZAZU eta siesta egiten utzitik EZZAZU
8	Masa kementsu zanpatuta EZZAZU
1	Aurreko astean egindako ogi-masatik gordetako puska orantza bezala erabiltz EZZAZU
3	Irin multzoaren erdian lekua utzi eta orantza kokatuta EZZAZU
6	Irina jaurtikitako ur gainean ezartzen joan ZAITEZ
11	Labeari su eman IEZZAIOZU
10	Deskantsatzen utzitik EZZAZU ordu pare batez /Ogiari deskantsatzen utzitik IEZZAIOZU ordu pare batez
9	Masa zapi batekin tapatuta EZZAZU
7	Masa egiten edo oratzen joan ZAITEZ

<sup>3</sup> <https://drive.google.com/open?id=0B-3keSjQJn2JdlhHMxp3aTVLZTA>





7. Irudia: <http://media-cdn.tripadvisor.com/media/photo-s/02/26/a8/81/jardin-del-eden-troncones.jpg>

- Saia zaituz jarraibide testu konplexu bat sortzen denbora antolatzaileak erabiliz eta aditzak egOKMtuz.

Lehenengo aurreko astean egindako ogi-masatik gordetako puska orantza bezala erabil ezazu.

## 5. Eranskina: Janariarekin harremanduriko ohitura eta abestiak

- Begiratu ondorengo irudiak. Zer bereizgarri dute ondorengo ogiek? Ikusia al zenuen horrelako ogirik? Zergatik izango ote da?



- Ba al dakizu zer den ur berria? Irakur itzazu ondorengo estrofak. Ba al dakizu orain zer izan daitekeen? Ohituraren bat agian? Ezagutzen al duzu honelako abestirik?

*Urte berri, egun ona*

*egun onaren seinalia*

*emen dekar ur berria*

*iriki ezazu ataria*

*Sentitzen zaitut sentitzen*

*ari zerala jaikitzen*

*zure zapeta krisketai hotsa*

*onera ditut aritzen*



*Poltsan badauzkat diru bi*

*bata besteari irudi*

*etxe ontako etxealabak*

*ama birjina dirudi*

*Hor goian goian izarra*

*erreka ondoan lizarra*

*etxe ontako limosnarekin*

*ez degu beteko zakurik*

### Bideoen esteka:

Ogia: <https://drive.google.com/open?id=0B-3keSJQJn2JREJsSUMzdkhEMnM>

Ur berria:

- <https://drive.google.com/open?id=0B-3keSjQJn2JMvIBMC1pT3RQbm8>
- <https://drive.google.com/open?id=0B-3keSjQJn2JQWNqVEJxTWhucUE>

Hemen erabilitako irudien esteka:

[http://www.primrose.es/product\\_thumb.php?img=images/WF8007\\_add3.jpg&w=500&h=482](http://www.primrose.es/product_thumb.php?img=images/WF8007_add3.jpg&w=500&h=482)

[http://2.bp.blogspot.com/-5wQFi\\_wlap8/Tn9M4wIBIH/AAAAAAAAABNE/-QRyT3MPAZY/s1600/IMG\\_0323.JPG](http://2.bp.blogspot.com/-5wQFi_wlap8/Tn9M4wIBIH/AAAAAAAAABNE/-QRyT3MPAZY/s1600/IMG_0323.JPG)

[http://3.bp.blogspot.com/-cO164TFTYHQ/UIV7zZ8VxQI/AAAAAAAAAB\\_g/kG09d9C5FJ4/s1600/4.jpg](http://3.bp.blogspot.com/-cO164TFTYHQ/UIV7zZ8VxQI/AAAAAAAAAB_g/kG09d9C5FJ4/s1600/4.jpg)

## 6. Eranskina: Pintxoaren informazio fitxa

## **TORRIJAS**

**OSAGAIAK** (*lau pertsonentzako*)

Irudia txertatu hemen

**Prestaketa:**

**Nutrizio ezaugarriak:**

**Adierazi zeintzuk diren eta zertan diren aberatsak (azukreetan, proteinetan...)**

**Nori gomendatuko zeniekete? Astetan zenbat qu pintxoa?**

### 7. Eranskina: Hiztegiaren froga

#### Hiztegia

Aukeratu hutsuneetan jarri beharreko hitza

---

\* Derrigorrezkoa

1. Helbide elektronikoa \*

\_\_\_\_\_

2. Haurrek gaur biberioa hartzen dute baina lehen \_\_\_\_\_ jaten zuten. \* Markatu aukera bakarra.

Tripota

Oladua

Ahia

3. Amonak lurrez eginko ontzi bat oparitu dit eta honek \_\_\_\_\_ izena duela esan dit. \* Markatu aukera bakarra.

Almote

Kokela

Pozala

4. Bi \_\_\_\_\_ eskuetan hartu eta han joan zen Peru behizagientzako ur bila potzura. \* Markatu aukera bakarra.

Pozale

Almote

Kokel

5. Nire amonak txikitan oso gustoko zuen \_\_\_\_\_, txokolate txuriz egindako bola zena. \* Markatu aukera bakarra.

Oladua

Ahia

Behizagia

6. Aitonak dio \_\_\_\_\_ ematen duen esnea zapore hobea duela. \* Markatu aukera bakarra.

Behizagiak

Almoteak

Oladuak

7. Oiloei jateko ematen zaien arto kopurua neurtzeko erabiltzen den \_\_\_\_\_ eramateko eskatu zidan aitak \* Markatu aukera bakarra.

Almotea

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

Kokela

Pozala

8. Gazitza da... \* Markatu aukera bakarra.

- Gatzetan sartzea soilik
- Txerri puskei baratxuri salda eta gatza botatzea
- Bakailauari gatza kentzea

9. Nire amonak odolkia esan ordez \_\_\_\_\_ esaten du \* Markatu aukera bakarra.

- Kokela
- Tripota
- Almote

10. Areak eta \_\_\_\_\_ urinak isurtzen dituzte duodenora janaria disolbatzen laguntzeko. \* Markatu aukera bakarra.

- Minak
- Tripotak
- Kokelak

11. Marisak \_\_\_\_\_ buruan jarri eta ur bila joan zen herriko iturrira. \* Markatu aukera bakarra.

- Ferrata
- Behizagi Ahia
- 

---

Garatzailea:



## 8. Eranskina: Ondarearen froga

### ONDAREA

\* Derrigorrezkoa

1. Helbide elektronikoa \*

---

2. Zer da ondare kulturala? \* Markatu aukera bakarra.

- Zinea, musika eta jokoak
- Gure arbasoek utzitako aztarnak
- Gizakion hondakinak

3. Zer ondare kultural mota daude? \* Markatu aukera bakarra.

- Materiala eta Inmateriala
- Eraikinak eta istorioak
- Materiala, inmateriala eta likidoa

4. Zer da ondare kultural materiagabea? \* Markatu aukera bakarra.

- Ahoz aho transmititzen joan dena belaunaldiz belaunaldi
- Pelikulak edo abestiak
- Hizkuntzak

5. Zer garrantzia du belaunaldien arteko transmisioak? \* Markatu aukera bakarra.

	1	2	3	4	5	
Oso gutxi	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Ikaragarria

6. Zergatik aukeratu duzu aurreko erantzuna? \*

---



---



---



---

7. Zer gerta daiteke gure ezagutzak transmititzen ez badizkiegu ondorengoei? \* Markatu aukera bakarra.

- Ezer ere ez, ikasiko dute euren kabuz
- Ezingo dute euren identitatea ondo finkatu Beste batzuk:
- \_\_\_\_\_



Garatzailea:



## 9. Eranskina: Pintxo festaren proiektuaren autoebaluaketa

### PINTXO-FESTAREN PROIEKTUA

\* Derrigorrezkoa

1. Helbide elektronikoa \*

\_\_\_\_\_

2. Gustatu al zaizu proiektua? \* Markatu aukera bakarra.

Bai

Ez

3. Nork lagundu zaitu proiektua egiten? \* Markatu aplikagarriak diren guztiak.

Gurasoek

Aiton-amonek

Izeba-osabek

Anai-arrebek

Beste batzuk: \_\_\_\_\_

4. Proiektuarekin hasi aurretik, ba al zenekien zer jaten zuten zure aiton-amonek txikitan? \*

Markatu aukera bakarra.

1      2      3

Bai    Ez

5. Proiektuaren amaieran zaudetela, ba al dakizue zer jaten zuten zure aiton-amonek txikitan? \*

Markatu aukera bakarra.

	1	2	3	
Bai	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Ez

6. Proiektu honek lagundu al dizu aurretik ezagutzen ez zenuen, zure familiaren errezetaren bat ezagutzen? \* Markatu aukera bakarra.

Bai

Ez

7. Proiektu honek lagundu al dizu zure senideekin harremanetan jartzen? \* Markatu aukera bakarra.

Bai

Ez

8. Nafarroako iparraldeko euskalkiak ulertzeko gaitasuna garatzen lagundu al dizu proiektu honek? \*

Markatu aukera bakarra.

	1	2	3	4	
Bai	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Ez

9. Hiztegi berria ikasten lagundu al dizu proiektuak? \* Markatu aukera bakarra.

Bai

Ez

10. Gustatu al zaizu lekuko ahoetatik hiztegi hori ikastea? \* Markatu aukera bakarra.

Bai

Ez

11. Ondo pasatu al duzu pintxoak burutzeko informazioa biltzen? \* Markatu aukera bakarra.

Bai

Ez

12. Ondo pasatu al duzu pintxoak egiten? \* Markatu aukera bakarra.

Bai

Ondare kultural materiagabea euskararen irakaskuntzan: Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat

Ez

13. Ikasi al duzu zerbait zure ikaskideen familien inguruan? \* Markatu aukera bakarra.

Bai

Ez

14. Nafarroako euskalkiak ezagutzen lagundu al dizu proiektuak? \* Markatu aukera bakarra.

Bai

Ez

15. Nafarroako euskalkiak ulertzen lagundu al dizu proiektuak? \* Markatu aukera bakarra.

Bai

Ez



